

ARGIA

HAURDUN GERATU EZIN DIREN EMAKUMEAK

Apur dezagun tabua



2.856 | 2024 / 01 / 28 | 4,00 €

26-31. orriak



**Uraren lapurreta,
Israelen helburu
politikoa**

12 | PALESTINA



**"Auresku tabernan
jendea askatasun
oso ez egon da"**

16 | ELENA GUINEA



LARRUN #292
Uraren zikloa

Jarioka

Asmatu hitz ezkutua... Kontuz hitz debekatuekin!



Zure taldeak hitz hau asmatu behar du...

Abantaila	Garantia	Suziria	Taberna
<ul style="list-style-type: none"> Onura Hobaria Probetxua Lehenengoa Etekina Aurrena 	<ul style="list-style-type: none"> Bermea Ziurtatu Abala Etxea Erosketa Hipoteka 	<ul style="list-style-type: none"> Jaia Espazioa Kea Lehertu Piroteknia Festa 	<ul style="list-style-type: none"> Jatetxea Edaria Pintxoa Topalekua Ostatua Benta

... baina ezin dituzu hitz hauek erabili



Eta kontuz, denbora mugatua duzu!

Trebezia komunikatiboa, azkartasuna eta ezagutza bultzatzen dituen mahai-jokoa.

+4 lagun

1.200 hitz baino gehiago asmatzeko

323 karta (18 komodin)



Prezioa **25 €**

Bidalketa gastuak 5€. Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: PAULA ESTÉVEZ

Iritziak

- 21 | ENDIKA ALABORT
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | ARKAITZ ZARRAGA
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | INMA ERREA

Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 42 | DENBORAREN MAKINA
- 43 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
KIMMY OBONGONYINGE
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



12 | ISRAELEN KOLONIZAZIOA, MAPA HIDRAULIKOA ESKUAN AZALDUA

Jenofa Berhokoirigoinek ondutako Net Hurbilean azaldu du Israelek nola lapurtzen duen Palestinako ura. Izan ere, iturri, ibai eta lurpeko ur geruzen arabera finkatu zuen kolonizazioa Israelek. Osloko Akordioek uraren banaketa desorekatua itundu zuten. Gaur egun, palestinarrek derrigortuak dira Israeli erostera honek lapurtu dien ura, hamar aldiz garestiago.

Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | PERTSONAIA | ELENA GUINEA

“Taberna bat edukitzea ardoak ateratzeko bakarrik, paso”

Danele Sarriugarte

26 | GIZARTEA | AMA IZAN NAHI ETA EZIN

Isilpeko dolua

Mikel Garcia

32 | EKONOMIA | ASIER GUERRA

“Eroskin higadura fisiko handia jasaten dugun langileontzat gutxieneko baldintzak lortu ditugu”

Izaro Villarreal

35 | EUSKARA

Minorizazio gorrian

Iñaki Iurrebaso / Telesforo Monzon elab

44 | KULTURA | LITERATURA | SOLITUDE

Hautatua den bakardadearen testigu

Ainhoa Aldazabal

46 | KULTURA | ARGAZKILARITZA

Isabel Azkarate, kliska bakarreko argazkilaria

Jone Alaitz Uriarte

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mattin Azpiroz,
Mikel Garcia, Onintza Irueta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuzá

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Ikusgaitz

Etterik gabe bizitzea imajinatu ezinezko eguneroko bizimodua da etxedunontzat. Eta agian, hain zuzen ere horregatik, ez ikusiarena egiten diegu eta erdigunetik ahalik eta urrunen botata, parean topatuko ez ditugulakoan. Oinarrizko bizi-baldintzak bermatzen ez dituen sistema ankerraren alderik zatarrena ispilu txarra da gainerakoon lasaitasunerako. Baina begiak ixteak ez du ingurunea aldatzen. 60 urteko gizonezko bat hilik topatu dute Iruñean, ohetzat zeukan bankuan etzanda. Argazkia Donostikoa da, 300 bat lagunek gau eta egun kalea bizitoki duten postaleko hirikoa.

 JON URBE / FOKU  AXIER LOPEZ



 ARGIA *Sariak*



Euskarazko kazetaritza
eta komunikazioaren
ARGIA sariak 2024

Urtarrilaren 26an
ospatuko dugu 35. edizioa,
Usurbilgo Atxega jauregian.

Sarituko ditugun arloak:

Entzunezkoa
Prentsa
Ikus-entzunezkoa
Internet
Kanpaina

Informazio guztia argia.eus
webgunean duzue eskura.

Ekitaldia osorik ikusteko
aukera ere,
urtarrilaren 26 arratsaldeko
20:00etatik aurrera izango da,
webgunean bertan.



Osakidetzak 8 milioi euro “irregulararki” esleitu dituela salatu du LABek

 IZARO VILLARREAL LAUROBA

LABek Osakidetzako kontratuen zati-
katze irregularra detektatu du. 381
kontratu txiki aurkitu ditu 2022an,
zortzi milioi euro baino gehiago guztira.
Herri Kontuen Euskal Epaitegiari proze-
duraren berri emango dio.

Osakidetzak 2022an egindako kontra-
tu txikien esleipen prozedurak aztertu
eta hortik ondorio garbia atera du LAB
sindikatuak: zortzi milioi euro esleitu
dituzte “legez kanpoko kontratazio pro-
zedura” bidez. “Praktika orokortua” izan
dela adierazi du LABeko koordinatzaile
orokor Garbiñe Aranburuk, Araba, Gi-
puzkoa zein Bizkaiko ESletan atzeman
baitituzte kasuak, eta ESirik “zipriztin-
duenak”, Arabako ESia eta Gurutzetako
Ospitalea direla azpimarratu du. Orotara,
iruzur eginez zatikatutako 381 kontratu
txiki aurkitu dituzte.

ZATIKATZEA, KONTROL PUBLIKOA SAIHESTEKO BIDE

Kontratu publikoen legeak jasotzen due-
nez, obra esleipenak zatitzea ez da legala,
eta LABek aztertutako kasuetan, gainera,
obrak zatitzeko arrazoi ekonomiko, or-
ganizatibo edo teknikorik ez dago: “Arra-
zoi bakarra da enpresa batzuk saritzea;
gainera, egiteko modu horrek kontrol
publikoa saihestea dakar, opakua da,
eta honelako lanak esleitzerakoan beha-

**Sindikatuaren esanetan,
jazotakoa ez da
kudeaketan gertatu
den hutsunea, erabaki
politikoa baizik,
“eredu neoliberal eta
bezeroakerian oinarritua”**

rrezkoak diren publikitate baldintzak
saihesten ditu”. Egoera benetan “larria”
dela kritikatu du sindikatuko arduradun
Aranburuk.

Sindikatuaren esanetan, jazotakoa ez
da kudeaketan gertatu den hutsunea,
erabaki politikoa baizik, eta gogor kri-
tikatu du EAJren “eredu neoliberal eta
bezeroakerian oinarritua”. Azpimarratu
du neoliberalak dela “osasun sistema pu-
blikoa ahuldu” eta “pribatua indartzea”
duelako helburutzat. Eta, aldiz, bezero-
akerian oinarritua, “alderdiaren inguruko
enpresak saritzen direlako”.

Urkullu lehendakariari eta Sagardui
osasun sailburuari zuzendu zaie Aranbu-
ru: “Agortu zaie denbora. Alferrrik saia-
tuko dira gertatzen ari denaren ardura
langileen eta sindikatuon higadura estra-
tegia bati egozten”. ●

Espantua



UXUE APAOLAZA LARREA

Ez du irabaziko, erotuta dago, esaten ari dena ez da posible. Edonork ikusten du ez dagoela estatu bat gobernatzeko prestatuta. Teoriko bat da, ez dauka errealitatearen kontzientziarik. Feminismoak emandako pausoak atzerazinak dira, herritarrek ez dute onartuko zenbait eskubide zalantzan jartzea. Ezkertiarrenak eta demokrazian sinesten dutenek Massari emango diote botoa, gustatu edo ez, Mileik ez irabazteko. Eskuindarrak ere ez dira fidatzen berarekin.

Irabazi egin zuen. Eskuindarrek, fidatu edo ez, nahi izan zutelako, eman zizkiotelako behar zituen botoak, eman ziotelako behar zuen azpiegitura estatu bat gobernatzeko gai ez zena izan zedin.

Boterera iritsita ere ez du esandakoa egingo. Ezinezkoa da. Ezkertiarrenei gertatzen zaiena gertatuko zaio, programan daramaten hori ezinezkoa izaten da osorik aplikatzea, kontratobereak daude, botere oso ondo ezarriak daude. Eta zer. Ez du dolarizatuko? Eta zer. Noski egingo duela esandakoa. Desegino du estatua, utziko du indarkeriarako bakarrik. Desegino du Argentina bera, zatika salduko du traidoreek saltzen duten eran. Kenduko dizkiete, noski, eskubideak emakumeei. Feministaren batek iragarri du Argentinatik ihes egingo duela, jazarpena ezin jasan. Ikusi ditugu bozgorailuetatik leku publikoetan mehatxu mezuak.

Graboisek botoa eskatu zuen maitasunagatik ez bazen, espantuagatik. Mileik irabazi zuen. Espantuak irabazi zuen. Barrea erraz izozten da, eroa baino tontoagoa bada. ●



MOTZEAN

► **"Trantsizio berdearen fartsa"** salatu du Euskal Herria Bizirik sareak, Gasteizen egin duen aurkezpenean. Hamalau kolektibok eta norbanako gisa batu diren beste hainbat kidek osatzen dute sarea, eta Lurraren defentsan batu dira, "natura eta landa-ingurunea suntsitzen dituzten makroproiektu andanaren inposaketari aurre egiteko".

► Lemoako Bistibieta zabortegean egon liteke "Prestige" hondamendian euskal kostaldean bildutako galipotaren %37. Eusko Jaurlaritzak ukatu egin du ekologistek sarri salatutakoa, baina emandako datu kontraesankorrek susmoak areagotu dituzte.

► Euskarari "puntu gehiegi" ematea leporatuta, epaileak bertan behera utzi du 181 lanpostu publikoren eskaintza.

► Maite Idirin Solatxi abeslaria hil da. Euskal kantagintza berrian, feminismoan eta euskara arloetan ezagun, ohorezko euskaltzain izendatu zuten 2014an.

► Presoen eskubideen aldeko manifestazioan parte hartu zuen, beste urte batez, Itziar Ituño aktoreak. Eskuin muturreko eragileek bere aurkako kanpaina abiatu zuten.

EKONOMIA

Gehiegizko berdintasuna



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Berdintasuna, haurdunaldia bezalaxe, badago edo ez dago. Berdintasunik ez dagoenean, ezberdintasuna dago, hori da neurtu eta baloratu daitekeena. Akaso berdintasunaren ondorioak izan daitezke gehiegizkoak batzuentzat, baina horrek eztabaida ondorioetan kokatu luke, sekulan ez berdintasunean. Hutsala dirudi aldeak, baina ez zait iruditzen. Pobreziak hitz egiten dugu aberastasunaren metatzeaz hitz egin beharrean, pobrezia da neurtzen dena, hor kokatzen da arazoa eta horretara bideratzen dira politikak. Baina, aldiz, atzean dagoen aberastasunaren pila-tzea ez da inoiz auzitan jartzen.

Soldata arrakala noraino dagoen errotoa, sektore feminizatuen atzean dagoen sexuaren araberako lan banaketa, kontziliazioaren iruzurra emakumeen lanaldia bikoiztu eta zaintza lanak kolektibizatzea eragozten duelako. Biolentzia matxistaren garrantzia gizon/emakume botere harremana betikotzeko. Lan nekazetza egin du feminismoak, izan mugimenduaren ekimenez, izan akademiatik edo erakunde mistoetatik, diskriminazioa arlo eta eremu guztietan bistarazteko. Borrokaldi oso bat, emakumeoi formal ki eskubideak aitortzeak ekarritako berdintasunaren iruditegiaren kontra. Bistakoak dira emaitzak, berdintasunaren iruditegia apurto eta desberdintasunaren atzean dauden egiturak, politikak, ideologia plazaratu ditugu. Berdintasuna lortzeke dugu ordea.

Baldintzak sortu ditugu emakumeon askapenean urrats berriak egiten joateko, eta ez da falta lurzoru hori lokaztu eta emakumeok bertan zango-trabatuak ikusi nahi gaituenik. Azaleko eztabaidak albo batera utzi eta gauzak aldatzeko sakoneko erabakiak hartzeko garaian, 10etik 4 baino gehiago askotan. ●

ANALISIA



Demonioak hemen, demonioak han

URKO APAOLAZA AVILA

Davoseko talaimendi distiratsu eta zuritik hitz egin digu Repsoleko sheriffaren ahotsak, denok entenditzeko moduan: “*We have to broaden our mind*”. Alegia, mentalitatea zabaldu behar dugula, ezin dugula pentsatu erregai fosilik gabe bizi gaitzekunik. Ze uste zenuten zozomikoteok... Eta behin belearena egiten hasita, beretzako moldatu du desazkundearen defendatzaile askoren printzipioa: “*Decarbonizing is not electrifying*”. Trantsizio energetikora hurbilketa ideologikoa egiten ari garela –beraien poltsikoek ideologiarik ez balu bezala–. Ezin direla hegazkinak, kamioiak eta industriak argindarrarekin soilik mugitu. Behar ditugula bere findegia, bere diesel eko eta bio likatsua, munduak funtzionatuko badu.

Ez da lehen aldia. Josu Jon Imazek denbora darama matraka berarekin, erregai fosilak “demonizatu” egin direla esaten. Baina oraingoan Teresa Ribera espainiar superministroak erantzun dio buruzagi jeltzale ohiari: uzteko mesedez diskurtso populistak alde batera. Eta hori guztia EAEn bere alderdiak PSE-EE eta EH Bildurekin Trantsizio Energetikorako Legea adostu bezperatan... Albiste izan behar zuen noski.

Txirritak *Albaiteruen sala* bertsoan ikusitako demonioekin bezala, diskulpatzen aritu zen Josu Jon Davosen, bera eta bere elitekoen *gasolinakaxi* parrandagatik. Ajearekin beste gauza batzuk ahaztuta izango ditu akaso. Esaterako, bi urte direla Peruko kostaldean Repsolek sekulako hondamendi ekologikoa eragin zuela eta hango milaka arrantzale oraindik protestan direla kalteak ez dituztelako konpondu. Horrek ez du hainbeste oihartzun izan mass-mediatan.

2022ko urtarrilaren 15ean La Pampilla findegian milaka tona petrolio upel isuri ziren itsasora, eta kostaldeko 1.780 kilometro koadro kutsatu zituen marea beltzak. Gaur egun, inguruko 30 hondartzatik 25 oraindik erabat zikinduta daude eta itsas hondoko eremu zabal batek kutsatuta jarraitzen du. Arrantzatik bizi ziren milaka herritar ezer gabe geratu dira eta Repsolek jarraitzen du kargu egin gabe, indemnizazioak ordaintzeari iskin egiten. Hori dela eta, salaketa kolektiboa jarri diote Herbehereetako GKE baten bidez.

Bigarren urteurrena bete den egunean, konpainia petrokimikoaren Limako egoitza aurrean elkarretaratu dira: “*Repsol ecocida, Repsol asesina!*”. Agian haiei ere esango die Imazek mentalitatea zabaldu behar dutela? Demonioak beti gorputzaren bueltan. ●

49

migratzaile esplotatzea egotzita, gizon bat atxilotu dute Donostian. Eibarko lau etxebizitza eta lokal batean bizi ziren biktimak, "baldintza penagarrietan". Eraikuntza lanetan esplotatzen zituen eta "legez kanpo" errolatu zituen.

5

aberatsenek bikoiztu egin dituzte fortunak azken hiru urteetan, munduan. Aldi berean, 2020tik hona, munduko 5.000 milioi pertsonaren erosahalmena murriztu egin da. Oxfam GKEaren datuak dira.

4

hilabete daramatza pediatrarik gabe Gasteizko Alde Zaharra eta Errota auzoetako osasun zentroak. 22.051 herritarri ematen die arreta zentroak. Berez bi pediatra ditu zentroak, baina 2021etik bakarra dago lanean. Baja hartu du eta ez dago ordezkorik aurreikusita.

"Espero dut nire semearen heriotzak balio izatea Laudion osasun sistema publikoarekin dauden arazoak konpontzeko"

FABIAN HERNANDEZ

Laudioko anbulatorioan, medikurik ez zegoelarik zendutako David Hernandez 42 urteko gizonezkoaren aita.

AIARALDEA (2024-01-16)



"DATOZEN 20 URTEETAN ERRUSIAREN AURKA ERABATEKO GERRA IZATEKO PRESTATU BEHAR DUTE HERRITAR ZIBILEK"

BOB BAUER

NATOko presidentek adierazi du gerra pitzuz gero, zibil asko mobilizatzear gain, gobernuak "prozesua kudeatzeko sistemak" ezarri beharko lituzketela.

2024-01-16

"Gu atxilotu gintuzten ETA Euskal Herriko ekuazio politikotik ez ateratzeko"

ARNALDO OTEGI

EH Bilduko koordinatzailea, Bateraguneko auziko auzipetuen izenean.

2024-01-17



TEKNOLOGIA

Marmotaren eguna



DIANA FRANCO

Badirudi adimen artifiziala erabiltzea beharrezko ongaria bilakatzeko ari dela erakundeen lehia-kortasunerako. Badirudi, ikertzen, alderatzen, sortzen denbora erabiltzeak, eta horrekin ezagutza esperientziaren prozesuaren bitartez geureganatzeak (gizakion ekonomietan lehengai nagusia dena) lanordutan ekartzen duen kostua oso handia dela eta berrikusi behar dela. Zertarako eman orduak proiektu baterako kalkulu-orria diseinatzen, adimen artifizial generatibo batek segundotan eman badiezazuke erantzuna? Zertarako egin argazki bat artikulu baterako? Zertarako galdu denbora proiektu baten lanketan dirulaguntza bat lortzeko?... Ez ote da nahikoa ideia izatea? Zelan kendu erditik ikerketa eta garapena?

Bai nire inguruan, bai sektore ezberdinetan badaude erakunde ugari teknologia hauek berenganatzen, emaitza azkarrak eta kostuen murrizketarako aukerak ekarriko dizkietelakoan.

Sistema horren baitan denok harapatuta geratzen bagara, denok arazo berak konpontzeko galdera berak egiten baditugu, errealitateko esperientziatik ikasi ordez adimen artifizialari galdetu beste egiteko modurik praktikatzen ez badugu, ez al dira adimen artifizial horiek gero eta gauza berri gutxiago sortzeko gai izango? Ez al gara bukile bat sortzen ariko? Ez al dugu gure gizartea lautuko? Txirrotuko? Marmotaren eguna bezala errepikatzen diren proiektuak sortuko ote ditugu?

Baina, beharbada, gutxiesten nabiltzen teknologia hau, beharbada galdera onak izan daitezke adimen artifizialetan ideia berriak sartzeko modua, beharbada datu-baseen parte bilakatuko dira noizbait galderak, eta horrekin aniztasun eta konplexutasun handiagoko adimenak bilakatuko dira. Beste gauza bat izango da, horrelako sistemen baitan lan egiteak gure izateari zentzu handiagoa ekarriko ote dion. ●

NAZIOARTEA



EL UNIVERSAL

Guatemala, 100 eguneko sokatira

AXIER LOPEZ

Bernardo Arévalo de Leónek Guatemalako presidente kargua hartu du. Hauteskundeak irabazi dituena presidente izendatzea ez litzateke albiste izango kasik, baina Guatemalan bai. 100 bat egunez, krimen antolatuarekin lotutako estatuko indar ustelak beren pribilegioak babesten saiatu dira. Guatemala "erregimen hibrido" gisa sailkatu izan da: ezaugarri "demokratiko eta autoritarioen" nahasketa gisa.

Duela urtebete, Arévalo ezezaguna zen. Ez zen inkestetan agertzen. 2015eko ustelkeriaren aurkako protesten giroan jaio zen Movimiento Semilla alderdi sozialdemokrata. Hain zuzen ere, Guatemala gobernatu duen kasta politikoko ustelaren parte ez izateak eragin ditu, Arévalok abuztuan hauteskundeak irabazi zituenetik, presidentetzara ez heltzeko saiakerak.

Arévaloren garaipena ustekabekoa izan zen. Elitearen gustukoak ez ziren beste hautagaiak lehen itzuliaren aurretik deskalifikatu zituzten, aldaketaren aldeko jendearen itxaropena txikia zen. Baina Arévalok bigarren itzulira pasatzea lortu zuenean, igoera geldiezina izan zen, eta horrekin batera *lawfare*aren hasiera. Are gehiago, bigarren itzulia baino egun batzuk lehenago, bera hiltzeko plan bat atera zen argitara, estatuko indarren eta paramilitarren parte-hartzearekin.

Consuelo Porrás Argueta fiskal nagusiak, AEBetan ustelkeriagatik zigortutako funtzionarioak, Semillaren aurkako ikerketa abiatu zuen, inskripzio pro-

zesuan irregulartasunak egin zituelakoan. Ondoren, alderdi politikoa bertan behera uzteko agindu zuen. Konstituzio Auzitegiak agindua blokeatu zuen eta bigarren itzuliak aurrera jarraitu zuen. Arévalok botoen %58 lortu zituen, eta hautagai ofizialistak %37. Berehala hasi ziren bere inbestidura eragozteko aha-lerinak. Herritarren protesta artean, Konstituzio Auzitegiak eskuineko sektoreen helegiteak jasotzen eta baztertzen jarraitu zuen, Arévalok hilaren 15ean karguaz jabetu arte.

ETA JATORRIZKO HERRITARRAK?

Herritarren %44k bere burua "indigenatza" dauka, baina Kongresuan ez dago indigenarik (Sonia Gutiérrez ezkertiarra izan ezik). Ollantay Illamná blogean dioten bezala, Semillak ez du nazio aniztasunaren aldeko apusturik egin, ez dute irabazi jatorrizkoekin batera borroka egiteagatik, ustelkeriaren aurka zorrotz egiteagatik baizik. Arazoa da borroka hori askotan ustelak beraiek edo pribilegiatuek gorpuztu dutela.

Luis E. Sabini Fernández kazetariaren arabera, egun Guatemalan hiru "aktore" daude. Lehena oligarkia zaharra da, maien eta kitxeen gainetik bizi dena pribilegio-sareei esker. Bigarren aktorea indigenak dira, mobilizatuta daudenak eta lurralde defendatzen ari direnak oligarkiaren indarkeriari aurre eginez. Eta hirugarrena, Semilla da. Lehen aktorearen etsai amorratua da, baina, jatorrizko herriei zer harreman duen ikusteko dago. ●

Uniformeak eskola guztietan

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Kastetxe guztietako ikasleek uniforme eraman beharko dute 2026tik aurrera Frantziako estatuan, presidentek iragarri duenez. Hainbat hezitzailei galdetuta, "aniztasunaren kontrako neurria" dela garbi dute. Identitatea erakusteko eta espresatzeko modu bat da arropa, eta ikasle guztiak uniformizatu, homogeneousatu eta subjektibotasun oro ezabatu nahi du Macronen Gobernuak.

Klase sozialen arteko desberdinkeria ezabatzeko helburuz erabaki daiteke ikasleei uniformea ezartzea, baina Emmanuel Macron presidentearen diskurtsoa osorik entzunda, ez dirudi xedea hori denik. Diskurtsoan zerrendatzen dituen asmo eta erabakiak aintzat hartuta, "dena da multzo bat, eta multzo horrek ematen dio zentzua uniformearen neurriari, ikuspegi bati erantzuten dio, eta ulertzen dugu ez duela funtzio sozial bat, helburua aniztasuna ezabatzea dela, ikasleak uniformizatzea. Arroparen bidez, identitatea erakusteko moduak bilatzen ditu jendeak, eta uniformearekin hori estaltzen da", adierazi digu Amelia Barquin hezitzaileak.

"Ezabakeria eta homogeneousazio horretan, ziurrenik badira asmo batzuk: ez dadila hijabik ikusi, ez dadila ikusi oihal afrikarrik, ezabatu daitezela beztitzeko molde urbano zenbait (klase sozialarekin eta beste jatorritako herritarrekin zerikusia izan ditzaketenak)...", iritzi dio Nora Salbotx hezitzaileak. Neutraltasunaren izenean, ezabakeria ikusten baitu Salbotxek, arrazakeria eta klasismoa ardatz.

Gure itxura eta gorputza kudeatzeko modua, batez ere adin jakin batzuetan, espresatzeko eta adierazteko modu inportantea da, agian beste eremu batzuetan ez dugun askatasuna janzkeran baliatzen dugu horretarako, eta horri guztiari kontra egiten dio neurriak, azaldu du Barquinek. Uniformea ikuspegi sozio-ekonomiko batetik defendatuta ere, "klase sozialak beti bilatzen ditu moduak bere distira erakusteko", dio, zapata eta motxila garestien bidez, esaterako.

NESKEK GONA, MUTILEK PRAKAK?

Uniformeek binarismoa indartuko duten susmoa eta kezka ere agertu dute



123RF

"Ezabakeria horretan, ziurrenik badira asmo batzuk: ez dadila hijabik ikusi, ez dadila ikusi oihal afrikarrik, ezabatu daitezela beztitzeko molde urbano zenbait..."

bai Barquinek bai Salbotxek: neskentzat arropa bat, mutilentzat beste bat.

Eskolaren instrumentalizazioa ere kritikatu du Salbotxek: "Diskurtsoan, Macron mintzo da ordenaz eta segurtasunaz, hobeto armatzeaz, mugak hobeki kontrolatzeaz, droga kontrol gehiago egiteaz, Polizia bikoizteaz, hezigabeak diziplinatzeaz... eta diziplinatze horretarako erabiliko duen tresnen artean eskola aipatzen du, inongo erreparorik gabe. Brigitte Vasallok eta bertze hainbatek salatu izan dute, estatuak diziplinatze tresna batzuk erabiltzen dituela bere begirada inposatzeko, tartean eskola. Horren adibide garbia da hau".

FRANTSES NAZIONALISMO ESKUINDARREAN HEZTEA XEDE

Uniformearen neurriarekin batera, Lehen Hezkuntzan *La Marseillaise* ikastea edota lizeoko ikasleek zerbitzu na-

zionala egitea aipatu ditu Macronek, besteak beste. Finean, badirudi haur eta gazteak frantses nazionalismo eskuindarrean hezteko tresna bilakatu nahi dituela ikastetxeak Frantziako Gobernuak, eta hala berretsi digu Peio Jorajuria Seaskako lehendakariak: "Bai hitzaldian bai eszenografian, biziki kontserbadorea eta frantses nazionalista izan da mezua, eta hori da hezkuntzaren bidez egin nahi duena, frantses nazionalismoa garatu, ikasle guztiek nazionalismo hori barneratu dezaten. Guretzat biziki kezagarria da, baina ez gaitu harritu, azken urteetan bide hori jarraitzen ari baita Gobernuak".

Seaskari nola eragingo dion galdetuta, "kontratupeko eskola garenez, eragin eragiten digu, legea aplikatu behar dugu", erantzun du, "baina gauza bat da komunikatzen dena eta bestea azken testuan joango dena, urteotan beste adierazpen gogor batzuk ere egin izan baititu eta gero ez da esandako guztia aplikatu; ikusiko dugu zein den azken testua eta zer den eta nola aplikatu behar dena".

Emmanuel Macronen hitzetan, bi urte barru janzkera bakarra sartuko da indarrean Frantziako estatuko ikastetxeetan, baina asmoa da aurretik ehun bat ikastetxetan proba egitea, eta uniformearen erabilera ongi baloratzen bada, neurria gainerako eskoletara zabaltzea. ●

ISRAELEN KOLONIZAZIOA EZIN DAITEKE ULERTU MAPA HIDRAULIKOARI BEGIRA JARRI GABE

Juduen eta musulmanen testu sakratuetan balio handiko osagai gisa ageri da ura, eta Jordan ibaia leku garrantzitsutzat dute batak eta besteak. Baina esparru izpiritualetik hezur eta haragizko errealitatera jaitsi eta hil ala biziko osagai gisa ageri zaigu guztioi, eta tartean, palestinarrei. Iturri, ibai eta lurpeko ur geruzen arabera finkatu zuelako bere kolonizazioa Israelek. Orduz geroztik berdin darrai, palestinarrei ura debekatzen, Palestinako urak bereganatzen eta lapurturikoa prezio garestian saltzen palestinarrei... Guzti hori ilegalki eginda... edota Osloko Itunaren zigilu pean.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Uraren erronka ez da bigarren mailako kontu bat. Israel eta bere auzo arabiarren arteko harremanen oinarrian dago, Israel eta Palestinaren arteko harremanak ulertzeko gakoetako bat da". Baieztapen hori irakurri dezakegu 2013an Hervé Amiot-ek idatzitako *Eau et conflits dans le bassin du Jourdain* (Ura eta gatazkak, Jordan arroan) artikuluan. Israel-Palestina gatazkari nazioartetik bideratu albistegintzan eta analisisetan gutitan kontuan hartu ohi bada osagai hori, protagonista nagusiek badakite hil ala biziko garrantzia duela urak. Hil ala biziko osagaia dela badaki zisjordaniarrak, israeldar kolonoen etorreraz geroztik etxe ondoko iturriko ura desagertu zaiolako. Hil ala bizikoa dela dakite Israelek erabakitako eta banaturiko ur kantitate eskasaren arabera aitzina egin behar duten Zisjordaniako herriek. Hil ala bizikoa dela badaki Israelek putzua tapatu izanagatik bere uztak galduko dituen laborari palestinarrek, eta nola ez, hil ala bizikoa dela daki urteetan iturriko urak kutsaturik dituen Gazako herritarrak.

“Ekialde Hurbileko arazo guztiak konponduta ere, uraren banaketarena ez badugu konpontzen eskualdea zartatuko zaigu, bakea ezinezkoa izango zaigu”

Y. Rabin

Israelgo Lehen ministro ohia

Eta hil ala bizikoa dela badaki legalitate osoan Palestinaren lurretan putzua zulatzen dabilen Israelgo Mekorot ur konpainiak ere.

Mapa hidraulikoaren arabera kokatu zuten sionistek Israel eta orduz geroztik gatazka iturri izan da. 1919an jadanik ondokoa zioen Munduko Erakunde Sionistako presidente Chaim Weizmanek: "Palestinaren gero ekonomikoa erabat lotua da bere ur hornidudari". Ekialde Hurbilean, inguruak basamortu eta toki zehatz batzuetan metatzen delako ura -tartean, Palestinan-. Ibaiek berebiziko garrantzia dute, hala nola, Libano hegoaldean sortu, Kinnereth lakuan sartu eta Itsaso Hilean itsasoratzen den Jordan izenekoak. Israelek bere nahi zuena eta gehiengoan bere egin zuena. 1959an abiatu zuen, gainera, akueduktu baten eraikuntza, Kinnereth lakuko urak Israelen hegoaldera bideratzeko. Horrek ekarriko zuen 1967ko Sei Eguneko Gerra. Eraikuntza-lan horiek izan ziren 1965ean Fatah erakundearen lehen atentatuaren jomuga eta Israelen bereganatze horri kontra egiteko ubideak eta urtegiak eraiki zituzten Jordaniak eta Siriak ere -sistematikoki Israelek suntsitu zituenak-. Sei Eguneko Gerra "uraren gerra"



DENNIS JARVIS C.C

izan zenik ezin bada erran ere, osagai horiek kontuan hartu beharrak direla dio Amiotek bere artikuluan.

Gainera, mapa hidraulikoan ondorio zuzenak –eta kalkulatuak– ondorioztatu zituen: Gazako Zerrendaz eta Sinaiaz gain, Zisjordania eta Golan ere okupatuko zituen orduz geroztik. Amiotek dio: "Ibai-behealdean izatetik ibai-goialdean izatera pasa zen Israel, baliabide andanaren kontrola eskuratuta", Golanetik Kinnereth lakura doazen ubide ttipi guztiak, Zisjordaniako lurpeko ur geruzak eta beste. Pentsa, Israelen kontsumituriko uraren %20 okupaturiko Golane-k da, %25-30 Zisjordaniako lurpeko ur geruzetakoa, Jordanetik desbideratu uren %95 israeldarrei doa... Orduz geroztik, Israelen baimena jaso behar du putzu bat zulatu nahi duen lurralde okupatuetako palestinarrak.

Hori horrela, dependentzia horri lotua ere da okupazioa-

rekin jarraitzeko Israelen postura. Ondokoa irakurri daiteke *Ura eta gatazkak, Jordan arroan* erreportajea: "Estatu hebrearrak lurralde okupatuetako ur baliabideei begira duen dependentzia kontuan harturik, Israelentzat ezinezkoak dirudite Siriari Golan itzultzeak eta Zisjordaniaren burujabetzaren aitorpenak. Baliabide horien ustiaketak segituko du beraz, Hagako IV. Hitzarmenaren 55. artikulua zangopilatuz, zeinek dioen indar okupatzailea ez dela okupaturiko ur baliabideen jabe bihurtzen eta ezin ditzakeela bere zibilentzako erabili".

Israelgo Lehen ministro Yitzhak Rabinek berak zioen 1992an: "Ekialde Hurbileko arazo guztiak konponduta ere, uraren banaketarena ez badugu konpontzen eskualdea zartatuko zaigu, bakea ezinezkoa izango zaigu". Urtebete geroago etorriko zen Osloko Ituna, bi estatuko aterabide politikoa ekarri behar, baina, sekula ekarri ez zuena.





DENNIS JARVIS C.C

URRE URDINA Jordan ibaia hil ala biziko garrantzia du inguruko herrietzat. Ibaia bereganatzea izan da Israelen urteetako politika. Gaur egun, Jordaneko ur desbideratuen %95 Israeli doa.

“ITUNEKO ZATIRIK OKERRENA”

Comment les accords d’Oslo ont consolidé la mainmise d’Israël sur l’accès à l’eau en Palestine (Osloko Akordioek nola finkatu zuten Palestinaren ur eskuragarritasunaren gaineko Israelen kontrola) erreportajearen irakurri deza-kegunez, *Middle East Eye*-ko kazetariari ondokoa adierazi zion Osloko Itunaren izenpetzaileetarikoa batek –anonimotasuna atxiki nahi izan duena–: “Uraren gaian adituak ziren palestinar gehienak atera ziren negoziaketetatik, ez zutelako onartzen egin moldea. (...) Arduradun politikoaren lehentasuna, ordea, akordio batera iristea zen”.

Bost urterako iraun behar zuen adosturikoak, eta seguruenik uste horretan onartu zuten palestinarrek akordio injustu hori: Israeli bideratu zitzaion mendietako akuiferoaren %80a –nagusiki Zisjordanian kokaturikoa– eta Jordaneko ura debekatu zitzaion palestinarrei. Palestinarrei bideratu ur kuota %15era mugatu zuten –orduz geroztik aldatu ez dena, 1995az geroztik %75az emendatu bada ere Palestinako biztanleria–. Hori horrela, Mekorot israeldar konpainiari erosi behar diote ura, pre-

Gazako herritarrek egunean hiru litro ur dituzte hidratatzeko, sukaldatzeko eta garbitzeko (urriaren 7a aitzin, 40 litro zituzten). Batez beste, egunean 135 litro ur kontsumitzen ditu israeldar batek

zio altuan. B’Tselem GKEren arabera, 2020an Zisjordanian kontsumituriko uraren herena erosi behar izan zioten. Teorian, Palestinako Uraren Autoritateak du Palestinako uraren kudeaketa, baina uren fluxuen kontrolak Mekoroten esku segitzen du. Urari dagokion erabaki ororentzat israeldarren baimena behar izaten dute palestinarrek –errefusatu izan ohi zaiena–. Akordio horri segi, palestinarrek ezin dezakete

leku batetik bestera bideratu ura, haatik Israeliek, lasai asko, bideratu dezake Zisjordanian dauzkan kolonietara.

Abdulahman Tamini ikerlari palestinarra dio “ituneko zatirik okerreña” dela uraren kudeaketari dagokiona: “Mugimendu sionistaren historiari begiratzen dion orok badaki arras ongi urak zer nolako garrantzia duen eta badaki uraren baliabideen kontrola palestinarrei uztea ez zaiola erraza Israeli”.

30 urte pasa dira geroztik eta orduan adosturikoak hor darrai. Eta gaztazkei aterabideak atzemateko asmoz bi aldeek osaturiko Uraren Batzorde Mistoak berdin-berdin segitzen du ez-eraginkor: Zisjordaniako A eta B gu- neentzat balio du –Zisjordaniako lurren %40arentzat–, eta kontsentsu bidez funtzionatzen duenez Israeliek betoa jarri eta palestinarren ubide ala putzu eskaerak blokeatu ohi ditu.

Kolonoen onurara, palestinarrek haizatzeko estrategiaren barne kokatzen du uraren kudeaketa hori aditu bat baino gehiagok. Ondokoa irakurri dezakegu plateforme-palastine.org webgunean: “Zisjordaniako C gunekoei [Israelen okupazio pean dagoena] itu-



UR ESKASIA Berez urez aberatsa da palestinarren lurra. Baina, urtez urte ondasun hori bereganatzen aritu da Israel, ur eskasian utziz palestinarrak. 1993ko Osloko Itunak hein handi batean ahalbideturiko lapurketak dira, gainera.

rriak lapurtzen dabilta armada eta kolonoak. Iturridun gunek maiz 'ti-roketa gune' sailkatuak dira (sarrera debekatuz), lekuak husteru behartzeko palestinarrak. Apartheid-aren murrua eraikitzerakoan ere putzu eta iturri palestinarrak andana anexionatu zituen Israelen".

Egoera are okerragoa da Gazako Zerrendan: B'Tselem GKEren arabera, uraren %96,2 dute kutsaturik, Israelen ur zikinengatik; lurpeko ur geruzen kantitate handia ponpatzen die Israe-

Kolonoen onurara, palestinarrak haizatzeko estrategiaren barne kokatzen dute uraren kudeaketa hori aditu bat baino gehiagok

lek, eta gainera, azpiegituren egoera kaskarragatik uraren %40 galdurik dute (2020ko datuak dira). Hori horrela, lapurturikoa erosi beharra die israeldar enpresei Gazako familien %90ak -iturrikoa baino 10-30 aldiz gehiago pagatuta-. Eta 2023ko urriaren 7az geroztik zer erranik ez: hiru litro pertsonako dituzte egunean hidratatzeko, sukaldatzeko eta garbitzeko -40 litro zituzten urriaren 7a aitzin-. Batez beste, egunean 135 litro kontsumitzen ditu israeldar batek. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

Elena Guinea

GUZTIONTZAKO GUNEA SORTZEN



TABERNA BAT EDUKITZEA ARDOAK ATERATZEKO BAKARRIK, PASO



Etxe honetan askok ezagutzen dute Elena Guinea: 2021eko abenduan aldizkariaren azalean agertu zen, titi bakarrarekin eta irribarretsu, alboan zituela Sandra Barkaiztegi eta Olatz Mercader. Iñurri elkartearen (Min)bizi podcastean entzungo zuten beste hainbatek —Argia Saria jaso zuten iaz—. Baina Donostiako eta inguruetakako transmaribibollo pila batentzat, beste ezeren aurretik, Auresku tabernaren arima da Elenita. Irailean itxi zuten.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Lasarte-Oriakoa zara. Nola oroitzen dituzu haurtzarora, gaztarora...?

Oriako zatikoa naiz, eta Oztaran auzoan hazi nintzen, oso gustura. Oso auzo langilea izan da beti. Anekdotak bezala: nik 56 urte ditut, ba orain dela 50 urte oso arraroa zen, tamalez, neska bat ikustea futbol-leko trajearekin, baina ni beti futboleko ibiltzen nintzen auzoko gazteekin, eta nire bi anaien ekipamendua zen gehien gustatzen zitzaidana. Jendea harritu egiten zen horrekin, eta etxean bertan amak esaten zidan soinekoarekin joan behar nuela, baina nik gorroto nituen, eta beti nindoan prakekin. Orain gauzak aldatu dira, zorionez, eta gaur egungo haurrak eta gazteak ikusten ditudanean inbidia ematen didate.

Hemen hazi, hemen bizi. Modu aktiboan parte hartu duzu herrigintzan.

Nire bizitzan igual damutzen naiz gauza batzuetaz, baina oso harro nago eta sentitzen dut nire bizitzan egin dudako gauzarik hobereana izan dela heldutan euskara ikastea. Magisteritza bukatuta, hasi nintzen lanean Gautenan, haur eta nerabe autistekin, eta aldi berean jarri nintzen euskara ikasten. Nire familia osoa erdalduna da, eta anaia eta biok AEKn hasi ginen. Niretzat iraultza bat izan zen, eraldaketa bat, nire bizitza aldatu zen goitik behera. Betidanik euskaraz jakin dutenak ez dira konturatzen, baina bat-batean hizkuntza bat barneratzea, zure hizkuntza, niretzat izugarritzako klak bat

izan zen. Euskararengatik hasi nintzen gure herria beste era batera ikusten.

Hainbat arlotan militatu duzu.

Lehenik Korrikaren antolakuntzan laguntzen ibili nintzen, eta hor hasi zen pixka bat nire militantzia. Gero, Lasarte-Oriako Euskararen Maratoiaren sorreran egon nintzen oso gaztetatik, euskartaldean, Tximua irrati librean eta Tximua kultur taldean, herriko jaiak antolatzen; ondoren militantzia politikoan, Lasarte-Oriako Herri Batasunan, Batasunan, EH Bildun... Egon diren guztietan ibili naiz.

Gero feminismoa etorri zen ezker abertzalearen bitartez. Egon ginen Egitzen-en, eta Añña taldea sortu genuen; oso esperientzia positiboa izan zen. Eta baita



Elena Guinea

LASARTE-ORIA, 1967



Magisteritza ikasi zuen. Arlo horretan eta beste zenbait lanetan ibili ostean, tabernaria izan da azken bi hamarraldietan. Tabernak baino, proiektuak sortu nahi izan ditu, kulturari, euskarari eta feminismoari lotuta. Izan Inñuri elkartearen buru-belarri dabil orain, minbiziaren gaineko kontzientzia eta diskurtsoa zabalitzen. Bertso-saioetan gozatzen du bereziki. Hemezortzi saio egin dituzte jada, eta 2024an Tolosara eta Oiarzunera joango dira, besteak beste.

ere tokatu zitzaidan militatzea Senideak eta Etxeraten, anaia bat preso egon zelako urtetan.

Azken hogeita piko urtean tabernari aritu zara.

Herriko presoen taldean Patxi zegoen, gaur egungo nire bikotekidea, eta berak hartu behar zuen Xirimiriren kudeaketa —Lasarte-Oriako herriko taberna—. Ni langabezian nengoen momentu horretan, eta taberna erdibana hartzea proposatu zidan. Hor hasi nintzen tabernari, Patxirekin, gero hortik ezagutu ginen hobeto eta gure harremana sortu zen; orain dela 25 urte, pentsa! Handik urte batzuetara Donostiako Parte Zaharreko Herriari hasi nintzen, eta han egon nintzen hamar urte eta piko.

Herriko tabernen auziak eragin zizun?

Ahaztuta nengoen! Bai, Donostian nengoela jada, miaketa batzuk egon ziren, niri tokatu zitzaidan miaketa fuerte bat tabernan bakarrik nengoela. Jende guztia kanporatu zuten, eta lekuko bezala beste pertsona bat utzi zuten sartzen, kale osoa guardia zibilez inguratuta... Auzitegi Nazionalera ere deklaratzera joan behar izan nuen presoen argazkien gaiarengatik. Tabernak abokatua jarri zidan, [Inñigo] Iruin, eta berak esandakoa egin nuen. Kasua artxibatu zuten.

Ez zen samurra izango.

Bueno, banekien ez zitzaidala ezer gertatuko, baina tragoa pasatu behar. Beste batean, Egizanen geundenean, Gasteizera joan ginen Emakunde okupatzera, emakume presoen eskubideen alde. Ertzaintza etorri zen, eta berriro atxilotu gintuzten. Egun osoa pasa genuen kalabozoan, baina gero ere lortu zen artxibatzea kausa hori.

2015ean Aurreku taberna hartu zenuten Patxik eta zuk, Ikatz kalean hori ere.

Bai, aukera atera zen lokala alokatzeko. Hartu genuenean ez nekien zer egin behar genuen edariek edo diruarekin, eta berdin zitzaidan, baina nire buruari zin egin nion Aurrekun askatasun osoz egongo zela jendea, ez zela inor sartuko beste inorekin ez gay izateagatik, ez trans izateagatik, ez beso bat falta zaizulako edo ez dakit zer. Hori oso argi neukan, eta orain-

dik gogoan daukat bikote bat etorri zela tabernara, zabaldu eta oso gutxira, bikote hetero bat, eta barre egin zioten mutil bati, haren keinuak-eta imitatuz, “afeminatuak” zirelako karkotx artean, eta gogoratzen naiz super ondo sentitu nintzela esan nienean: “Zuek biak kalera zoazte”. Brometan ari zirela esan zidaten, baina ni oso serio ari nintzen. Eta bidali egin nituen. Ondoren bezero eta langileen artean ondo kudeatu ditugu horrelako egoerak eta saiatu gara ez onartzen inoiz inongo erasorik. Sekulakoa da askea izatea horrelako espazio seguru bat sortzeko.

Eta gero, ezagutzea feminismoaren inguruko mugimendu erraldoi eta zoragarri hori niretzat sekulakoa izan da, eta beti babesa izan da. Niretzat, Aurreku, taberna bat baino gehiago proiektu bat zen, gune bat, kulturalki ere saiatzen ginen euskal kulturarekin lotutako gauzak egiten, batez ere emakume sortzaileekin. Zer kontatuko dizut ba zuri.

Aurreku etxea izan da Donostiako herri-mugimenduentzat, bereziki transfeministentzat eta transmaribibolloentzat.

Donostian leku gutxi daude horrelakoak. Pixka bat hankamotz geratzen da zentzu horretan, eta pena da. Niretzat ere inportantea da halako guneak edukitzea. Adibidez, orain dela bi urte sortu genuen Lasarte-Oriako transmaribibollo kolektiboa, eta hor ere sorreratik egon nintzen: oso pozik, oso emankorra izan da. Orain arte barne-elikaduran aritu gara, eta orain zabaltzen hasi gara.

Duela bi urte manifestazioa egin zenuten lehen aldiz ekainaren 28an, ezta?

Bai. Lehen Donostiako manifestaziora joaten ginen beti Lasarte-Oriatik, eta anonimoagoa zen, baina gure helburua da hemen herrian bertan ikusgarritasuna ematea.

Kultur jarduera asko ere egin dituzue Aurrekun.

Argi neukan hasieratik halakoak egin nahi nituela, eta pena da oso leku txikia dela, baina gure gauzatxoak egin ditugu, kalean ere bai: bakarriketak, kontzertuak, bertso-saioak, liburu-aurrekezpenak, mota askotako festak... Eta apostasiari buruzko kanpaina majo bat



ere egin genuen. Gizarte patriarkal katoliko hetero eta abar honetan, horrek pixka bat puskatzeko, informazioa pasa genuen: zer den apostasia eta nola egiten den. Oso ondo atera zen, eta bukatu genuen festatxo batekin. Apostasia ere egin nuen eta oso harro nago egin izanaz.

Pandemia nola bizi izan zenuten?

Ba pandemian ere borrokan. SOS Ostalaritza taldea sortu genuen, hor ere atxilotu ninduten, diputazioan kateatu ginen eta kalabozora. Baina ostalaritzaren gremioa ez dago antolatuta, ez dago ia sindikaturik; ez daude sindikatuta ez langileak ez jabeak, gehienak autonomoak dira. Horrek aukera eman dit ikusteko jendeak zer helburu dituen. Dirua jokoan dagoenean dena eman nahi dute eta zortzi mila *mani* egiten dituzte, baina bakoitzaren diruarengatik eta kito. Alde Zaharra hobetzeko baldin bada, edo kulturaren alde... ezer ez. Tabernarien artean ere badago oso jende solidarioa, e? Baina betikoak dira.

2023ko irailean itxi zenuten taberna. Nolatan hartu zenuten erabakia?

Ixteko erabakia gaixotasunengatik izan da gehienbat. AurreSKU zortzi urte darama, justu irailean egin genituen. Hasieran Patxi eta biok ibili ginen kudeatzen, super ondo, baina handik gutxira Patxi minbiziarekin egon zen —oraindik badago minbiziarekin, ez da sendatzen bere minbizi-mota, baina orain egonkor eta ondo dago—, eta baja hartu behar izan zuen: ingresatu, ebakuntzak, ZIU, kimioterapia... Nik laguntzen nion denean, baina tabernan bakarrik gelditu nintzen. Hartu nuen motxila eta aurrera, eta gauza eder pila bat sortu dira AurreSKU.

Orain dela bi urte niri tokatu zitzaidan minbizia edukitzea, bajaran egon naiz ia bi urtez; orduan ezin nuen parte hartu, ekitaldi kulturalak ere eten egin ziren pandemiarekin, eta ez neukan indarririk horiek berreskuratzeko. Eta taberna bat edukitzea ardoak ateratzeko bakarrik, paso; nire helburua beste taberna mota bat zen, beste proiektu bat. Hasieratik, herriko tabernetan egon naizenean ere bai.

Uztailaren bukaeran alta eman zidaten, saiatu nintzen bide guztietatik baja luzatzen, baina ezetz, jada sendatuta nengoela. Kontua da pilulengatik gelditu naitzela oso nekatuta, oso ahul, gorputz osoa minduta, eta ez nuen nire burua ikusten lan egiteko. Gaixotasunak horrela etortzen direnean, filosofia aldatzen zaizu.

“

Nire buruari zin egin nion AurreSKU tabernan askatasun osoz egongo zela jendea”

Ni sufritzen ari nintzen, tabernari ekarpenik egin ezinda, Patxi marroi guztiarekin, eta esan genuen: “Horrela ezin dugu eramán”. Gaizki kudeatzeko, ez dugu kudeatuko. Beraz, zorretan sartu aurretik, duintasunez ixtea erabaki genuen.

Minbizia aipatu duzu, eta jende askok, hain zuzen, Iñurri elkarteko kide gisa ezagutzen zaitu. Zer da Iñurri?

Izan Iñurri elkartea xume-xume hasi zen Lasarte-Orian; Julene Illarramendik eta Miren Cuedok sortu zuten, minbizia ikuspegi feministatik lantzeko. Orain dela lauzpabost urte izan zen, eta nik ia hasieratik izan nuen harremana beraiekin, batez ere Patxi gaixotu zenean. Esan

nien, “badakit minbiziaren inguruan zeozer egiten ari zaretela, eta bueno hemen gaude, bikotekidea ez dago prest inon agertzeko edo ezer esateko, baina uste dut zaintzaileok eta laguntzaileok ere paper bat dugula”. Eta noski, beraiek lagundu zidaten eta zaindu ninduten. Harremantxo hori genuen, eta ni minbiziarekin nengoenean, lehenengo gauza izan zen Juleneri deitzea: “Bularreko minbizia daukat”.

Zein izan da prozesua diagnostikoaren ostean?

Lau ebakuntza egin zizkidaten bi bularretan, eta laugarrenaren ondoren hemen jarraitzen zuen minbiziak, eta mastektomia egin zidaten, bularra kendu zidaten. Horrela utzi nuen, berregin gabe eta protesirik gabe; oso argi neukan. Etxera etorri nintzenez ospitaletik, bueltaka ibili nintzen. Esaten nuen, ea, ezagutzen dut jende pila bat bularra kendu diotena, baina fisikoki inor ez dut ezagutzen titi bakarrekoa, ez dut halakorik ikusten ez biluzik, ezta jantzita ere. Eta arraroa egiten zitzaidan.

Errealitate hori ikusarazteko, besteak beste, egutegiak egin dituzue elkartetik. Oso ederrak dira: era askotako gorputzak agertzen direlako batez ere; hala gertatzen da errealitatean.

Egutegi hauen helburu bat zen, noski, orbainak eta gaixotasunaren ondorioak azaltzea, baina niretzat beste helburu bat super inportantea da gorputzak erakustea: batzuk argalak, beste batzuk baxuak, beste batzuk lodiak, denetik,



zereen itsusia ez da inor. Gorputzarenak niretzat kristoren inportantzia dauka. Jatunaldietan ere parte hartu nuen [Euskal Herriko I. Jardunaldi Lodiak], oso gustura, eta baita ere joan nintzen Bilgune Feministaren mintegira, gorputzen burujabetzari buruzkoa. Eta horretan murgilduta oso ondo sentitzen naiz. Gai-xo egonda ekarpen hori egiteak sekulako energia ematen dit.


Etorkizunera begira, zein dira zure ametsak? Zertarako gogoak daukazu?

Ufa. Bizi. Jendeak galdetzen didanean, ea orain Aurrekuren ondoren zer egin behar dudan, argi erantzuten diet: bizi. Letra larriz jarri hori: BIZI. Nire helburua da bizitzea, ahal den kalitatearik onenaz. Lan eta lan genbiltzan bikotekidea eta biok jubilaziora iristeko, eta ikusi genuen agian ez ginela iritsiko ez bera ez ni, orduan nire helburua da momentua bizitzea, lau sosekin, baina buruhaus-terik gabe. Lan politik egin ditut militantzian, politikagintzan, eta oraindik

jarraitzen dugu hainbat gauzatan [Onkologikoko erabiltzaileen talde bat sortu dute, besteak beste], baina gauzak beste era batean hartu nahi ditut, eta auskalo hurrengo abentura zein izango den. Nik orain nahi dudana da urte bat behintzat hartu indartzeko, ze ez nago lan egiteko, baina buelta ematen badiot gorputzari, nire buruan dago lokal bat ikustea eta jarraitzea marikoikeriarekin eta gustatzen zaigunarekin. Aurrekuko ildoarekin segitzea: leku aske bat guztiontzat.

Beste zerbait esan nahi zenuke?

Ba oso eskertuta nagoela Aurreku izan garen familia guztiari eta inguru feminista osoari. Niretzat izan da sekulakoa, gauza pila bat ikasi dut, oraindik kontzeptu berriak ikasten segitzen dut gazteengandik, eta niretzat zuekin konpartitzea sekulakoa izan da; gaixotu nintzenez eta batez ere bularra kendu zidatenean, nik hain argi baneukan zer egin nahi nuen nire gorputzarekin, mugimendu feministarengatik izan da. Esan nahi dut, mugimendu feminista hain gertu edukiko ez banu, nik igual beste era batera pentsatuko nuke. Ez dakit zer punturaino berregingo nukeen titia, baina agian disimulatu egingo nuke. Baina mugimendu feministak irekitzen dizkizu begiak eta burua, eta nik oso argi neukan zuei esker. Pentsatzen nuen “ezin diet huts egin hauei, iraultza egin behar da”. Iñurri kriston lana egiten ari da, eta nabaritzen da, baina guztia da mugimendu feministari esker. Hori gabe ez zen egongo titi bakarra erakusterik ez biluzterik. ●



Soziolinguistika aldizkaria

harpidetu edo oparitu > URTEAN 40 euro

- Hiru hilez behin, BAT aldizkaria etxean bertan.
- Hiru hilez behin, BAT aldizkaria PDFn eta EPUB-en jaso.

<https://bat.soziolinguistika.eus> / 943 592 556

bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus


BAT 128. ZENBAKIA

EUSKARA ELKARTEEN AKTIBAZIOA



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

- **KIKE AMONARRIZ GORRIA ETA JASONE MENDIZABAL ALTUNA** > “Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu”. Euskaltzaileen Topaguneak Oinarriparren Lehen Kongresutik hona egindako ibilbidea
- **JASONE MENDIZABAL ALTUNA ETA IÑIGO RETOLAZA EGUREN** > Batera Jauzi elkarrizketa prozesua. Euskararen erabilera bultzatzeko pentsamendu berri(tu) bat eraikitzen.
- **GARAZI AZKUE OTEGI ETA ARRATE ILLARO ETXEBARRIA** > Arau sozialak, hizkuntzak praktikak eta gobernantza ereduak.





Giza Kapitalaren Ministerioa



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Lanerako bidean, irratia entzuten, EAEko enplegu sailburuak talentu falta dagoela aipatu du, langile presatuak falta direla, lan merkatuaren arazorik larrienetakoa dela. Aipagarria da bertoko enpresa-erakundeek bultzatzen duten ideia bera erabiltzea, hainbat txosten, mahai-inguru eta prentsa oharretan behin eta berriro errepikatutakoa. Lan merkatuaren inguruan, badirudi talentua (eta horren falta) arazo nagusia dela.

Hala ere, talentu falta hori langileen gehiengoaren errealitatetik urrun dago, egunez eguneko arazoak beste batzuk dira. Adibide moduan, azken astean ezagutu ditudan kasuak hartuko ditut. Lehenengoa, lana eta familia kontziliazioa errazteko neurri baten ingurukoa. Arazo teknikorik gabe telelana posible da. Nahiz eta legediak zehaztu eskubide bat dela, epaitegietara jo behar. Langileak eskatzen zuena enpresak epaitegian onartzen du, baina neurria martxan jartzerako orduan, enpresak moldaketa berri bat egiten du, eta adostutakoa eraldatu. Langileak epaitegietara jo beharko du berriro.

Bigarren kasua erakunde publiko baten ohiko jarduna da. Behin behineko langileen lan kontratuak deuseztatzen ditu, baina paperetan agertzen den kaleratze egun ofiziala, helarazitakoa baino lehena-gokoa da, legez kontrakoa dena. Gainera, soldataren parte bat itzultzeko eskatzen du, baita dagokion Gizarte Segurantzaren zatia ere.

Lan arloko arazoei
heltzeko talentu falta
erdigunean jartzen
denean, produktoreen
beharrak eta arazoak
bigarren mailan edo
bazterrean jartzen ari dira

Hirugarrenean, lan hitzarmena betetzeko eskatu ostean, ostalaritza enpresak langileari diziplina-kaleratze bat oparitu dio. Enpresak badaki epaitegietan bidegabetzat joko dutela, baina kaleratzeak merkeak dira eta lanera berriro itzultzeko aukera enpresaren esku dago.


Ausaz edozein langileri galdetuz gero, kasuak amaiezinak lirateke. Langileen eguneroko ogia, bertoko lan merkatuaren ezaugarriak nagusia. Lan arloko arazoei heltzeko talentu falta erdigunean jartzen denean, produktoreen beharrak eta arazoak bigarren mailan edo bazterrean jartzen ari dira. Lan harremanen inguruan, talentua aipatu eta eztabaidaren muinean jartzerakoan, arriskua da patronalaren pentsamoldea gureganatzea: langilea (giza) baliabi-

dea dela, edo (giza) kapitala. Mentalitate hori jarraituta, logikoa da lan arloko gobernu-departamentuak Giza Kapitala izena jasotzea, gobernu ultraliberal baten egin duen moduan. Erabiltzen diren hitzek ageriko eta azpiko esanahia daukate, eta kapital eta lan gatazkaren aurrean dagoen jarrera hartzea azalarazten dute.

Enpresarien aldeko logika horiek eremu guztietara hedatuz doaz, eta administrazio publikoak funtsezko eragileak dira ikuspegi horretan. *Lan harreman eredu berriak, talentua* eta antzeko kontzeptuek, kapitala eta lanaren arteko gatazkan lehenengoaren aldeko ideologia eraikitzen dute. Hori oinarritzat hartzen badugu, ez izutu administrazioek Giza Kapitalaren Saila osatzen dutenean.

Hala ere, langileen aurkako erasoei aurre egiteko, badago gai hau iraultzeko gaitasuna daukan eta hitzen erabileraz haratago doan bidea: lan arloko antolaketa, gatazka zeozer kolektibo bilakatzeko gai dena. Aipatutako kasuetan, banaka erantzutea da arazo nagusienetarikoa, gizartearen bertan orokortu den jarrera. Beste lurralde batzuetan, erakunde sindikalek langile antolaketa eta afiliazioa bultzatzeko estrategiak zabaldu dituzte, lan baldintzen urteetako norabide okerra aldatu nahian eta lan harremanetan hizkera hau borrokatuta, Amazon, Tesla, Google eta antzeko enpresei aurre egiteko. Ezkortasunaren aurrean, lan antolaketa eta itxaropena. ●

Biziaren balioa



DOM CAMPISTRON



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Biziak badu balioa. Balio afektiboa, balio morala. Balio ekonomikoa ere bai: osasun eta garraio sailetan, arduradunek neurgailu estatistikoak erabiltzen dituzte biziaren balioa pisatzeko. Hain zuzen ere, agintariak hautuak egin behar dituzte, karkulatzeko zoin den kolektibitateak onar dezakeen indarra heriotza probabilitatea apaltzeko. Parcelsus (1493-1541), armada medikua, lehenetarik izan zen giza biziaren neurtzeari pentsatzen hasi zena. XVII. mendean, berriz, bizi asurantzak ekarri konpentsazio ekonomikoa asmatu zen, eta oraino zehazkiago neurtu zen giza balio ekonomikoa. Bideetan edo medikuntza alorretan biziak duen balio neurgailuak ordutik definitu dira.

Bizkitartean, giza bizi guziek ez dute errealitatean balio bera, hori du azpimarratu Benoît Bréville-k, *Le Monde Diplomatique* hilabetekariko azken zenbakian, *Si les vies se valaient...* [Bizek balio bera balute...] artikuluan. Zutabe horretan, Brévillek erakusten du Mendebaldeko herri aberatsek balio handiagoa eman dietela, adibidez, ukrainarren biziei, Gazakoei baino. Ukrainarrak saldoan izan dira ongiatorriak gure herrialdeetan;

Macron Frantziako lehendakariak, haatik, lau hilabeteko sarraskiaren ondotik, doi-doi aipatu du 50 bat palestinar haur zauritu errezibitzea, "baliagarri eta beharrezkoa" izatekotan. Gisa berean, Joe Biden, presidente estatubatuarra, oldartu zen Mariupoleko ospitalea bonbardatua izan zelarik, *genozidioa* hitza erabiliz, baina deus ez du salatu Gazako ospitaleen herena lehertua izan delarik. Brévillek bururatzen du erranez hedabide nagusiei gustatzen zaiela Hamasek hildakoen biktima kopurua konparatzea Israelgo populakuntzarekin: 1.200 erail, 8 milioi biztanlerekin alderatuta, litzateke hoge "Buruilaren 11", AEBetan, edo ehun "Bataclan", Frantzian. Nehork ez du erratan 20.000 biktima Gazan, 2,8 milioi pertsonako herrialdean, litzatekeela, Frantzian, proportzionalki, 580.000 hil, edo AEBetan, 2,8 milioi. Ohartu behar da ere Gazako presunen %70ak etxea utzi behar izan duela: hori litzateke Frantzian 50 milioi edo AEBetan 200 milioi... Ez, bizi guziek ez dute balio bera, munduko espazio publikoan.

Horretaz aspaldian ohartuak dira Bordele aldeko Cauri elkarteko kideak: badu aurten 30 urte xuxen borrokan ari

dela Ruandako tutsien genozidioaren ezagupenaren alde, botere frantsesak ez dezan gehiago sinetsaraz naturala dela afrikarrak etengabe gatazkan aritzea haien artean. Azken aste hauetan, azkenean, Cauri kideen temari esker, auzipetua izan da Sosthène Munyemana, Frantzian errefuxiatua zen hutua, 29 urteko prozeduraren ondotik. Bordele aldean, funtsean, Cauri elkarteak bere sustengu osoa erakusten die palestinarren genozidioa salatzen dutenei.

Giza biziak ez duela ber balioa: iritzi hori berretsi du Care Gobernuz Kanpoko Erakundeak, urtarrilaren 10ean, argitaratu dituelarik 2023an gutxienik aipatu diren munduko hamar krisi humanitarioak. Sorpresa handirik gabe, gaitz "ahantzi" horiek, hedabide nagusiek aipatu gabe utzi dituztenak, Afrikan iragaten ari dira.

Beharrik hor ditugu ARGIA bezalako hedabide independenteak, kazetari ausartak, eta literatura, bizi guztiei balio bera eskaintzeko. Lekukotasunaren eta fikzioaren bidez, alabaina, norberak esperimenta dezake hurkoaren eta urrunagoaren egiazko bizia, bereak bezain baliosa. ●

Gazteek, gero eta hiztegi murriztagoa



**ARKAITZ ZARRAGA
AZUMENDI**
EUSKARA IRAKASLEA

“Gazteek gero eta hiztegi murriztagoa darabilte”, “gazteen hizkerak gero eta mailegu gehiago ditu”, “gazteei adierazkortasun gabezia nabari zaie”, “laster erdaraz arituko gara euskaraz ari garelakoan”. Askotan erabiltzen ditut horrelako baieztapenak irakasleentzat antolatutako ikastaroetan. Arbelean idatzi eta ikasleei ados dauden galdetzen diet; jakina, gehienek baietz. Ondoren, zera botatzen diet: lehenengoa Konfuziok bota zuen K.a. 510. urtean. Bigarrena, Aristotelesek K.a. 329an. Hirugarrena, Habermasek... Plagio kaskarra da egiten dudana, behin beste irakasle batek egin baitzigun guri, baina ez nituen ez esaldiak, ez autoreak apuntatu eta, hortaz, asmatu egiten ditut. Azken esaldia bai, azken hori Lazkao Txikik bota zuen. Txarrena da irakaslea nor izan zen ere ez dudala gogoratzen, eta ezin eskatu benetako aipuak.

Ohikoa izan da beti gazteen edo belaunaldi berrien hizkerari kritika egitea, “garai batekoa” hobea zelakoan. Gure kasuan, gainera, gazteek ez ezik, pisu handia hartzen dute hizkuntzara heldu berri direnek ere, euskaldunon portzentai handia baitira. Ondorioz, inoiz baino “euskaldun” gehiago dira beste hizkuntza batean trebeagoak. Horren arriskurik larriena, ordea, ez da euskara “kaskartzea”, euskarari uko egitea baizik.

Hizkuntza ez erabiltzeko arrazoietakoa bat txarto egiteko beldurra izan daiteke. Gurea bezalako hizkuntza gutxituetako hiztunek eskapada erraza dute, inork gu txik kritikatzeko baititu gaztelaniaz, frantsesez edota ingelesez trakets egiteagatik, eta hizkera aberasten eta egokitzen joateko baliabide ugari dituzte eskura. Izan ere, gaitasun komunikatiboa ez da soilik eskoletan eskuratzen, ezta euskaltegietan ere; bizitzaren esparru guztietan ikasten da, eta azken aldian batez ere pantailetan. Hizkuntza hegemonikoek era guztietako egoera komunikatiboak dauzkate grabatuta (benetakoak nahiz fikziozkoak) eta horrek etengabe hizkuntzarekiko kontaktu zuzenean egoteko aukera ematen die hiztunei, eta erregistro guztiak lantzeko ere bai. Erdarazko *input* kopuru ikaragarria jasotzen dugu guztiok, arnaguneetakoek zein estuguneetakoek eta, ondorioz, hitzun trebatuak gara erdaretan.

Horregatik, ezinbestekoak ditugu ikusentzunezko materialak, kultur ekoizpen nahiz komunikabideetakoak edo errealak. Ondoren, ahozko eredu egoki eta ugari horiek fokuen aurrean jarri behar ditugu eta ondo sustatu, hizkuntza forma erakargarriak begi-belarrietatik sar daitezten. Hori guztia egin behar dugu, bai, baina batez ere, hizkerak kritikatzeko ohitura hori amaitu egin behar da. Ez da boli gorrien garaia, mese! ●

Nola begiratzen dio euskal plazak Arabari?



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Mendea urratzean jaio nintzen euskal plazara. Lehenbizi, poeta-
ren etiketa irabazi nuen sariketa batzuei esker. Handik gutxira, kolaborazioak idazten hasteko aukera izan eta, ohartzeko, zutabegile ere bihurtu nintzen. Geroxeago, artean ere mendeak denon begietara berri samarra zirudiela, Mugaldekoak taldea sortu genuen Bera-Gasteiz ardatza baliatuta, literatura eta musika uztartuta. Ondotik ere, mendeak berriaren dirdira galdu ahala, kulturgingintzan aritu izan naiz, bakarrik nahiz konplizeen arrimu goxoan. Horretan nabili oraindik...

Kontua da, hogeitaz urtetik gorako bide horretatik, irudipen batek egin didala bisita bisurte berrian: nolabait, plaza horretan gehiago balioetsi izan dutela nire alderdi bidasotarra nire alderdi babazorroa baino; gehiago, nire nafartasuna nire arabartasuna baino. Batez ere, baina ez bakarrik, Bizkai-Gipuzkoetan.

Irudipenek ez dute zientzia mailako kategoriarik. Dena den, zenbait galdera egiteko baliagarri gerta daitezke: neurea bakarrik ote da irudipena? Araban –ez Gasteizen soilik– sortzen den kultura ezaguna da gainerakoan? Nola begiratzen dio euskal plazak Arabari 2024an? ●

Komun



INMA ERREA CLEIX
IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

Hitz horren adierak lagun, berdin jo dezakegu komunitatera, arruntasunera zein behar fisiologiko ohikoenetara, beharrezko bezain tabu ditugun horietara.

Ez naiz hizkuntzalari eta ez dakit nola eratzten diren hitzen esanahien arteko harremanak, zein arauri jarraitzen dioten, halakoei jarraitzen badiote, edo apeta ezkutuen arabera garatzen diren. Baina *komun* hitzaren adierei berehala igartzen zaie beheko gauza orokorren pilpira, gauza goren, eskusibo eta dotoreen kontrakarrean.

Usu, gutxiespen-usaina ere dario komunari, keriek orok sortzen duten susmoak piztuta.

Bitxia da zeinen ongi ahokatzen zaion gure garai honi bizimodu eta jokamolde komunitarioekiko destaina (maiz batera doaz gudan komunitatearen goraiatzea eta bertan parte hartzeko arbuioa), gure mende honi, non garaile baitira, nagusi, indibidualismoa, besteengandik bereizteko go-go eta besteen gaintetik nabarmentzeko desira. Eta bitxia ere, nola egiten duen talka horrek gizarte modernoan

Ez dit balio besteekiko harremanak sare sozialen gainean soilik eraikitzeak, sare sozialek komunitate-irudipen faltsua sortzen baitute sarri guregan

bizimodu gero eta kolektibizatuago eta berdinduagoarekin. Guztiok uste dugu bagarela nor, besteen diferente, besteengandik bereizita, eta gauza garela guk geuk geure burua sostengatzeko, baina gizarteari sostengua emateko adreilu komunak gara, nor arruntak, nahiz gure handiusteak bestelakorik pentsarazi guri.

Ni aski indibidualista naiz anitz gautatarako: ez dut erraz jasaten besteekin etengabeko harremanetan bizitzea, eta behar ditut ene aldentze-aldiak,

beste jendeengandik aparte egoteko tarte bakartiak.

Baina aldi berean behar dut besteekin bat egin, besteekin aritu, besteei eman eta haiengandik jaso. Beti jakin izan dut hori, baina azkenotan bizitzaren gorabeherek erakutsi didate uste baino komunitarioagoa naizela, harreman eta gauza komun zaleagoa eta aldekoagoa.

Eta horretan ez dit balio besteekiko harremanak sare sozialen gainean soilik eraikitzeak, sare sozialek komunitate-irudipen faltsua sortzen baitute sarri guregan. Harreman presentzialak ere behar ditut, harreman fisikoak, besarkadak eta musuak, aire-giro komun bat zeharkaturik elkarrekin gurutzatzen diren begiradak, hitzak, barreak eta, behar izatera, lantu eta haserreak.

Aldi berean sentitzen naiz nor eta adreilu, eta gero eta inportanteago jotzen dut besteekiko itsasgarria, izan lekeda, porlan edo iman-harri, kalitatezkoa izatea, hau da, komunitate baten balioen pertzean gatzatua, balio komunitario komun eta adostu batzuen arragoan bat eginda. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL · 943 37 11 50 · www.atxegajauregia.com



AMILLUBI LURRA TAUPAKA



Gipuzkoan, Urola ibaiaren meandroan, 90.000 m² lur erosiko ditu Biolurrek kolektiboan, laborari agroekologikoeak lurra izan ditzaten eta herritarrok elikagaiak.

Denon laguntza behar dugu: Babestu Amillubiko metro koadro bat lur. Informazio osoa eta ekarpena egiteko aukera:

www.amillubi.eus

Biolur
Gipuzkoa
Auzokotasun Ekologikoa Aldeko Ekartera

+ 27 eragileren babesarekin

**LURRA
HERRIARI
DEIKA**

Ama izan nahi eta ezin ISILPEKO DOLUA

Antzutasuna tabu eta estigma den gizarte honetan, zenbat galdera erantzun bila: haurdun geratu nahi eta ezin lortu, noiz arte luzatzen dira saiakerak, eta bide horretan zenbaterainokoa da nekea, bakardadea, erruduntasuna, lotsa, beldurra, obsesioa? Nola eragiten die etxeko eta inguruko harremanei? Ume bat izango ez duzula konturatzea zergatik da hain kolpe handia? Sozialki isildutako doluari nola egin lekua, nola berreraiki apurtutako ilusioa?

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  PAULA ESTEVEZ

Ugalkortasunaren inguruan ideia desitxuratua dugu, txikitatik barneratzen dugun mezua delako haurdun geratzea erraza dela (“ama zarenean...”); are gehiago, neurri antikonzeptiboak hartu behar ditugula gogoratzen zaigu sexu heziketa tailerretan, eta bilatu gabe haurdun geratu direnen historiak entzun ditugu, heldu xamar umea izan dutenenak, ez ordea arazoak dituztenenak, ama izan nahi eta lortu ez dutenenak. Umerik eduki ezin izan duten emakume erreferenteak falta direla nabarmendu digu Nagore Uriarte psikologo perinatal, enbriologo eta sexologoak, beren esperientzia sozializatuko duten emakume ezagunak, gaia normalizatzeko eta egoera horretan dauden emakumeek ez dezaten sentitu bakarrik daudela.

Ez dugu pentsatzen haurrik ezin dugunik izan, gainera klinika espezializatuak daude horretarako, baina errealitateak dio bikoteen %16 ingu-

“Proiektu baten desagertzea zen, eta ez genuenez ezer ulertzen, sentimendua gehiago izan zen haserrea eta amorrua, errudunak bilatzen nituen, nire burua ere zigortzen nuen”

Isabel Matía

ruk ugalkortasun arazoak dituela. Eta halere, gaiak tabu izaten jarraitzen du, intimitateari eta sexualitateari lotuta dagoen heinean are tabuago. “Nolabait, antzutasuna bizi dugu nahikoa emakume edo nahikoa gizon ez bagina bezala”, dio Uriartek.

Antzutasuna, baina, ez da diagnostiko zurruna izaten, ugalkortasun arazoak ditu jendeak –adina faktore garrantzitsua da– eta saiatu eta saiatu, prozesu amaigabea bihurtu daiteke, modu naturalean lehenik, laguntza medikuarekin ondoren. Hainbat baldintza betez gero, osasungintza publikora jo daiteke, baina itxaron zerrendak oso luzeak dira eta bikote askorentzat denbora etsai nagusia denez, klinika pribatura jotzen du hainbatek. “Gehienetan, emakumeak bizi dira mediku-hitzordutik hitzordura, tartean beste ezer egin ahalko ez balute bezala, biziraun besterik ez, desira obsesio bilakatzen delako. Noiz arte? Dirua, higadura fisiko eta emozionala, medikuen aholkuak... dira gidari, baina ezberdina da bakoitzak non jartzen duen muga eta ohikoa da prozesuan urteak pasatzea, haurdun geratzeko ziklo bat bestearen atzetik; hiru, lau eta bost urte daramaten bikoteak izan ditut kontsultan”, kontatu digu Uriartek.



Prozesuak gorabeherak eta inflexio puntuak ditu, abortu naturala jasaten dutenean esaterako, eta geldidunak egiteko beharra ohikoa da. Isabel Matfak horrela azaldu du bere esperientzia: “Klinika espezializatuan esperantza handiak genituen jarriak, baina lehenengo zikloan enbrioi bakar bat ere ez zuten lortu ateratzea, eta sekulako zartada izan zen. Ez geunden halako kolperako prestatuta eta sekulako tristura sentitu nuen. Bigarren zikloaren emaitza are okerragoa izan zen, proiektu baten desagertzea zen, eta ez genuenez ezer ulertzen, sentimendua oraingoan

“Guraso izan nahi eta ezina ez da sostengatzen erraza den (edo dakigun) elkarriketagai horietako bat. Ezingo diogu hitzik jarri sozialki isildutako tabuari”

Alaine Agirre

Irudian, Alaine Agirre. Eskuineko orrian, Nagore Uriarte. Bere esperientzia kontatu du Agirrek: “Nire bizitzako beste leku batzuetara hasi nintzen bideratzen begirada, nire lekura bueltatuko ninduten gauzetan neure burua eta bizitza berdeskubritzen”.



gehiago izan zen haserrea eta amorrua, errudunak bilatzen nituen, nire burua ere zigortzen nuen. Eta gelditu egin behar izan nuen, arnasa hartzeko, nire burua osatzeko. Une horietan dena ilun ikusten duzu, dena negatibo, ziurgabetasuna izugarria delako, eta ez nuen lo egitea lortzen. Senarrak isilpean eramanean zuten, baina gaizki pasa zuten baita ere”. Prozesuaren okerrean, orduak eta egunak igarotzea medikuaren telefono deiarekin zain: “Antsietate handia sortu zidan, gain hartu zidan, eta bigarren zikloari ekin genionean esan nien nire telefono zenbakia ezabatzeko eta deiak senarrari egiteko, nik ezin nuen jasan”.

Pause ematea eta une batez gelditzea erabaki zuten baita ere Alaine Agirrek, “nire burua galtzen sentitzen hasi nintzenean”. “Gorputzak berba egiten digu, baina ez dakigu entzuten. Zorionez, politizazio eta terapizazio prozesu batzuen ondorioz, hasita nengoen gorputzaren barbaroa entzuten. Aldarri horiei kasu egiteko kapaz izan nintzenean, barrua entzuten hasi nintzen, nire (ezin) amatasunaren bidean neure buruari sentitzera baimendu bakoei erreparatzen, gertatutako bizitzen (urte batzuk beranduago bazen ere). Nik bizitakoaren narratiba idazteak lagundu zidan, metaforikoki bezain literalki: kontaktuz lagunei, bikotekideari, neure buruari, terapeutari errepikatzeak; baina baita fikzioaren mekanismo tranpatien eskuekin moldatu eta basatza-moltso horretatik zerbaiten forma izango zuen pieza bat sortzeak ere. Trauma birprozesatzeko sentitu egin behar ei dira barruan ataskatuta gelditu zaizkigunak; zauria orbaintzeko, norberak sortu behar omen du gertatu zaion hori bizi izan duen moduaren narratiba bat”. Alaine Agirre idazleak amatasunaren eta ez amatasunaren eta ezin amatasunaren inguruan dihardu *Karena* liburuan.

ERRUA ETA BELDURRA

Haurdun geratzeko borrokan, elkar gurutzatzen diren sentimenduak ez dira gutxi. “Zure haurra besoetan ez izateko beldurra, enbrioirik ez izateko beldurra, galeraren beldurra... Hain zailantzekoa den zerbaiten aurrean, nola ez izan beldurrik? Ziurgabetasunak, ez jakiteak, denak gainditzen zaituen sententzioak beldurra ematen du”, dio Uriartek.

Erru sentimendua ere beti dago. Saiatzen bazara lortuko duzula dio

gure gizarte indibidualistak, eta ez du zertan hala izan, baina kontziente edo inkontzienteki, sarri hala epaitzen du bai gizarteak bai norberak. “Lehenago informatu behar nintzen, lehenago hasi behar nuen haurdun geratzeko saiatzen... Auto-erruduntzen adituak gara emakumeak, eremu guztietan, zer esanik ez gai honetan, zeinetan karga handiagoa eraman ohi dugun emakumeok, ama izatearen presio soziala aita izatearena baino askoz handiagoa baita, txiki-txikitatik”.

“Auto-erruduntzen adituak gara emakumeak, zer esanik ez gai honetan, zeinetan karga handiagoa eraman ohi dugun emakumeok; ama izateko presio sozial handiagoa dugu”

Nagore Uriarte

Lotsa edo antsietatea ere ohikoak dira, baita gertatzen dena bidezkoa ez dela sentitzea ere, konparaketak arriskuak baitira (“ahalegin guztiak egin da ere, ez dut lortzen; beste batzuek aldiz, batere zaindu gabe, zeinen erraz”).

Eta bakardadea nagusitu ohi da, erabaki duelako ez kontaktzea (norbere burua babestu nahian), edo kontatu arren sentitzen duelako ez dutela ulertzen, edota astuna izan nahi ez eta ez duelako horretaz behar beste hitz egiten, egun osoa eman nahiko lukeen arren horretaz hitz egiten. Prozesua intimitatean eramatea ala ingurukoen laguntza bilatzea, zer da hobe? Uriartek dio ez dagoela formula magikorik, senide eta lagun jakin batzuk babes ona izango direla uste baduzu, ona izango dela kontaktzea, eta ez badira zuk behar duzun babesa eta laguntza, hobeto dela ez kontaktzea. Edozein kasutan, ongi pentsatu behar da nori esan eta zein baldintzapean (“ugalkortasun arazoak ditut, baina horretaz hitz egingo dugu behar eta nahi dudanean, ez elkartzeko garen bakoitzean”).

Isabel Matfarentzat, adibidez, funtsezkoa izan zen prozesu bera igaro zuten emakumeen laguntza-sare bat aurkitzea: “Hasieran pentsatu nuen, zertara noa ezagutzen ez dudane jende



PELLO MAUDO HERRERO

batekin nire intimitatea partekatzerara? Gainera, kontaktuek berak min egiten du. Bada, eskerrak egin nuen! Ordu-ra arte oso galdua eta bakarrik sentitzen nintzen, eta bidea argitu zidaten. Akonpainamendua, entzungo zaituen norbait alboan izatea zeinen garrantzitsua den”.

Alaine Agirrek ez zuen ezkutuan eramateko ahalegin berezirik egin: “Elkarrizketak horrainoko bidea zabaltzen bazuen, kontatu egiten nuen. Baina hitz egiten hasteak entzuten jakitea ere eskatzen du. Guraso izan nahi eta ezina ez da sostengatzen erraza den (edo dakigun) elkarrizketagai horietako bat. Ezingo diogu hitzik jarri sozialki isildutako tabuari”.

AMA DIRENENGANDIK URRUN, ISOLAMENDU SOZIALA

Halako egoeratan, isolamendu soziala ohikoa da, batzuetan erabakia, kontzienteki aldentzen garelako umeak dituzten lagunengandik, gogoratzen baitigute ezin dugun hori; beste batzuetan, inkontzienteki uzten diogu hainbat errutina eta gustuko gauza egiteari, adibidez haur parke bat gertu duen kafe-tegira joateari. Umerik izan ezin duen emakume batzuentzat, tortura izan daiteke umez inguratuta egotea, edota umeak hizketagai nagusi duten lagunengandik inguratzea. Horregatik, saiatzen ari den emakumearentzat, hainbatetan ona izan daiteke halakoetatik aldentzea, “lagunengatik ahalegina egingo dut” ja-

rrera batzuetan izan daitekeelako norbere buruari etengabe harakiria egiten aritzea, dio psikologoak. Gaizki-ulertuak saihesteko, lagunei aldentzeko behar hori esplizitatzea litzateke onena, baina sarri ez da hain argi jokatzeko. Gerora, ziurrenik, lagun taldera bueltatu nahiko du, baina pausoa ematea beti ez da erraza, lotsa eman diezaioke, eta askotan, itzulerako bidaia hori egin barik, bakar-dadean bizitzen du saiatzeari utzi osteko dolua ere.

Gauzak hitz egitea omen da gakoa, baina analfabeto emozionalak garelako dio Uriartek. Haurdun geratu nahi eta prozesuaren berri zuen jendeak, adibidez, ez dio ezer esan Olatzi, saiatzeari utzi ziola urte batzuk pasa direnean; apur bat harrিতuta kontatu digu hori Olatzek (izen asmatua). Psikologoaren arabera, maiz ez dakigu halako egoeratan zer esan edo nola hitz egin (abortu natural baten ostean, esaterako) eta pentsatzen dugu hobe dela dolua gogora ez ekartzea, min gehiago ez eragiteko, horretaz ez hitz egiteak ez existitzea ekarriko balu bezala, edo gaiari nola heldu ez dakigunez, “badaezpada” ez dugu gaia ateratzen... Azkenean, egoera hori kudeatzen ez jakitearen beldur, ez dugu galdetzen, eta egoera bizitzen ari den pertsonak are bakartiago bizitzen du bere dolua, bere inguruari axola ez balio bezala. Nagore Uriarteren aholkua, laguna zeharka apur bat zirikatzea, nahi badu kontatu dezan. “Entzuten jakitearekin nahikoa da, berak markatu ditzala tempoak. Entzun eta ez epaitu, hori da laguntzea”.

Aldiz, saiatzen ari denari aholku txarrak ematen iaioak gara maiz (“erlaxatu zaitez, pentsatzeari eta obsesionatzeari uzten diozunean lortuko duzu”; “estresatuta zaudelako ez duzu lortzen”; “ongi jan, ongi lo egin”, “adoptatu ume bat”, “haurrek lan handia ematen dute eta horrela hobeto zaudete”...). Umea izan nahia intimitatean daramanean ere, entzun behar izaten du emakumeak “ez al duzue guraso izatea pentsatu?”, “zeinen guri bizi zaretzen gaur egungo gazteak, ardurarik gabe” eta gisakoak. Norberak gainean daraman ardura eta zama areagotzea baino ez dakarte halako ateraldiek, bistan denez.

Bikotekidea izanez gero, etxe barruko harremanean ere eragiten du egoerak, nola ez. Ikuspuntuak eta mugak ezberdinak izan daitezke (ekonomikoak, fisikoak, emozionalak...) eta bikote batzuk krisian sartzen dira, sexu-harremanak alboratzea ohikoa omen da adibidez,

Saiatzen ari denari aholku txarrak ematen iaioak gara maiz (“erlaxatzen zarenean lortuko duzu”). Norberak gainean daraman zama areagotzea baino ez dakarte halakoak

plazeraren desira ordezkatu dutelako ume bat izatearen desirarekin. Uriarteren esperientzia da bere terapia saioetara joaten diren bikoteak krisitik indartuta eta sendoago ateratzen direla gehienetan, haien arteko komunikazioa areagotu egiten duelako egoerak.

“HONAINO!”

Pertsona gehienentzat ume bat izatea inportantea da gogobetetze pertsonalerako, hainbat inkestaren arabera. Presio eta iruditeria kultural-sozialak izango du eraginik pertzepzio horretan, norberak garaturiko desirek ere bai, baina islatzen du zenbateraino izan daitekeen gogorra kolpea, ezingo duela umerik

Umerik izan ezin duen emakume batzuentzat, tortura izan daiteke umez inguratuta egotea, edota umeak hizketagai nagusi duten lagunez inguratzea.



izan konturatzen denarentzat. Bizi-aurreikuspenak hankaz gora, bete gabeko espektatiben dolua hasten da, eta zenbat eta denbora gehiago eman duen saiatzen, zenbat eta gehiago ahalegindu, orduan eta zailagoa da gelditzea, orduan eta handiagoa da ondorengo porrot personalaren sentsazioa.

“Galera baten dolua da, gure bizitza eta familia izango zenaren ideiarekiko dolua, izango ginela uste genuenarekiko –dio Uriartek–. Oro har, oso txarrak gara doluak ulertzen, baita heriotzarenak ere, beraz pentsa dolu etereoagoetan; bakardadea eta ezulertu sentsazioa areagotu egiten da, sozialki ulertzen ez den dolua da”. Teoriaren arabera, hainbat fase ditu doluak: ukazioa lehenik, haserrea eta errua ondoren, tristura, eta onarpena azkenik. Esperientziaren arabera, faseek ez dute zertan segida hori mantendu, fase (eta emozio) bate-tik bestera mugitu gaitzeko, intentsitate ezberdinez bizi, berriz atzera edo berriz aurrera egin faseak errepikatuz... Eta dolua gaintitzeak ez du esan nahi mina joango denik: “Denboraren poderioz, mina intentsitate txikiagoarekin bizi dezakezu, baina dolua ez da desagertzen, pasatakoa ez da ahazten, dolu horrekin bizitzen ikasten duzu, doluak bizi-orbainak direlako, garenaren parte, eta beraz ez dira desagertzen, pilatzen doaz –azaldu du psikologoak–. Nire amamaren senarra duela urte asko hil zen eta gaur egun beste bikotekide bat du, baina egun sentsiblea badu, malkoren bat edo beste isurtzen du, bere dolua berpiztu egiten da une bakan batzuetan, eta ez da txarra, gizatiarra da”.

Aurrera egiteko gakoa zein den galdetu diogu eta Tribialeko gaztaren gisan, pertsonak kolore-anitzak garela erantzun digu, kolore bakoitza gure bizitzako arlo bat dela (bikotea, lagunak, lana, zaletasunak...). “Koloretako bat izan daiteke haurra edukitzeko gogoa, baina kolore hori beste koloreak jaten doa pixkanaka (lagunak, zaletasunak...), poliki-poliki norbera osatzen duten arlo guztiak alboratzen eta ahazten goaz, eta zentratzen gara antzutasunean; ez da egun batetik bestera gertatzen, gutxina-ka baizik, eta konturatzen garenerako, kolore bakarra dugu, gu garena izatea eragiten zuten beste koloreak galdu ditugu. Eta uste dugu berriro ere kolore askotakoa izateko guraso izatearen desira bete behar dugula, ez garela zoriontsu izango hori lortu ezean. Terapiari saiatzen naiz beste koloreak berreskuratu

“Oso txarrak gara doluak ulertzen, baita heriotzarenak ere, beraz pentsa dolu etereoagoetan; bakardadea eta ezulertu sentsazioa areagotu egiten da, sozialki ulertzen ez den dolua da”

Nagore Uriarte

ditzaten. Ez da erraza, sarri erantzuten didate ez direla pertsona bera, aldatu egin direla, eta hala da, aldatzen goaz urteekin, egoeretara egokitzen eta eboluzionatzen goaz, eta ezin dugu berreskuratu duela hamar-hamabost urteko emakumea, baina berreskuratu behar ditugu gure baitako beste arlo batzuk, ez dezan dena antzutasunak monopolizatu”.

Adoptatzeak lagundu dezake, ama izateko desira betetzen? “Adoptatzea aukera bat da, baina ez du zertan denon aukera izan. Amatasuna ez dugu denok berdin ulertzen, batzuek adibidez erditzearekin lotzen dute. Gainera, adoptatzea erabakitzen dutenek traba ugari izaten dituzte (denbora asko itxaron behar dute, adin mugak daude, ugalkortasun tratamenduan zaudela esaten baduzu itxaron zerrendatik kanpo uzten zaituzte...)”.

Alaine Agirrek ere, betirako gelditzea erabaki zuen, “bideak ekar liezadakeen balizko sariaren ordainetan eman behar nuen gaustiago bihurtu zenean, balizko sari hori baino”. Laguntza profesionala bilatu zuen, amatasunean espezializatutako terapeutena eta psikiatrena; “politikotasunez ere berreraiki nuen nire burua, Adrienne Rich irakurritz zein beste ama-izan-nahi-eta-ezin (hemen ere kontzeptua oraindik asmatzeke dago; eta izendatzen ez dena, ez ei da existitzen) batzuekin bilduta taldean. Nire ahotsaren bilaketaren eta beste isildutako ahots batzuen topaketaren pro-

zesua izan zen des- eta ber-eraikuntza hori. Besteen eta besteekiko benetako presentzia, neure buruarena, denbora, irakurketa, bestelako sostengu batzuk... eta begirada aldaketa bat ere bai, norberak egin behar duena, nahi izanez gero. Nire bizitzako beste leku batzuetara hasi nintzen bideratzen begirada, nire lekura bueltatuko ninduten gauzetan neure burua eta bizitza berdeskubritzen: edertasunaren bilaketan eta trataeran (pianoan eseriz, loreak zainduz, aulki abandonatuak zaharberrituz...), ideien eraikuntzan (irakurri, entzun), maitasunaren berformulazioetan (zaintzan eta atxikimendu seguruan oinarritutako harreman oso gutxi batzuen bitartez)”.

Profesionalekin edo konfiantzazko jendearekin, bizi duguna kontatzea eta partekatzea onuragarria da, baina batzuk hilabete gutxira kapaz dira horretaz hitz egiteko eta beste batzuek denbora gehiago behar dute, nabarmendu du psikologoak. Gainera, gaia tabua izateak zail jartzen du bizi dutenaren inguruan naturaltasunez hitz egitea. Kontuak kontu, “ukazioan bizitzea ez da aukera ona; erabaki dezakezu dolua une horretan ez egitea, baina uneren batean ziurrenik iritsiko da, beharbada hori gogoratuko didan zerbait gertatzen denean... Ego-kiena litzateke dolua bizitzea dagokion unean eta onartzea haserre, tristura, antsietate... uneak daudela, zeren zauria orbain bihurtzen du doluak, eta bestela haragi bizitan daramagu zauria”.

GIZONAK ETA MASKULINITATEA

Emakumeak dira erreportaje honen protagonistak, baina gizonen antzutasuna tabuaren tabua dela azpimarratu du Nagore Uriartek, gizontasuna eta maskulinitatea ezbaian jartzen duten komentario eta iseka matxisten jomuga izan daitezkeelako. Datuek diote antzutasun arazoek proportzio bertsuan eragiten dietela emakume eta gizoni, baina klinika espezializatueta, gaia eramaten duen profesionala ginekologoa da, alegia emakumearengan zentratzen dira, eta gizonak osagarriak baino ez dirudite, klinika gehienetan ez dagoelako kontsultarik andrologo edo urologo batekin. “Kontsulta horiek gehituko balituzte, gizonak sentituko luke bera ere kontuan hartzen dutela, eta aldi berean, karga guztia ez litzateke emakumearen gain jausiko, zama banatuago legoke. Aldiz, emakumeari proba ugari egin ohi zaizkio eta gizonari seminograma bat baino ez, semenaren kalitatea neurtzeko”. ●

“ ”

Eroskin higadura fisiko handia jasaten dugun langileontzat gutxieneko baldintzak lortu ditugu

Asier Guerra Herrero, Cecosako langilea

Elorrioko Eroskiren produktu ez-galkorren biltegiko Cecosa azpikontratako langileek oso baldintza kaskarretan dihardute: biltegiaren azken katebegan egiten dute lan zama handiekin, eta Espainiako Estatuko hitzarmena aplikatzen zaie. Abenduaren 11tik 16ra grebara jo zuten eta martxan

jarritako presio mekanismoen ondorioz, akordioa lortu du ELAk 2025erako %22,94 inguruko soldata igoerarekin, besteak beste. Bertako langile eta ELAko delegatu Asier Guerra Herrero azpimarratu digu lortutako minimoekin pozik badaude ere, "hasiera besterik" ez dela izan.

 IZARO VILLAREAL LAUROBA

Nola hasi zenuten grebara jotzeko prozesua?

Langileok maiatzean erabaki genuen antolatzea, eta lehen aldiz, hauteskunde sindikalak egin ziren. Behin antolatuta, lehen enpresa batzordea egin genuen, eta uztaila inguruan izan genuen enpresarekin gure lehen bilera; borrokatu beharreko baldintzak mahai gaineratu genizkien arren, hasieratik ezezkoa jaso genuen. Azarora arte itxaron behar izan genuen bigarren bilkura izateko. Horretan ere ez zen hobekuntzarik lortu, eta bost eguneko grebara jotzea erabaki genuen.

Zein egoeratan zineten grebara jo aurretik eta zeintzuk izan dira Eroskiri egindako eskakizunak?

Estatuko hitzarmena aplikatzen zaigu, eta lanbidearteko gutxieneko soldata ko-

bratzen dugu; gaueko, jaiegunetako edo txandakako lanak konpentsatzeko plusik gabe. Zortzi orduko lanaldia egiten dugun arren, eguna 7,67 ordutan zenbatzen ziguten, atsedena ez baitzuten kontuan hartzen. Hortaz, zortzi orduak zenbatzea nahi genuen, soldata-arloa handitzea, Bizkaiko elikagaien merkataritzaren hitzarmena aplikatzea, laneko osasun eta prebentzio neurri eraginkorren aplikazioa eta laneko prebentziorako gaiak eztabaidatzea, besteak beste. Horrez gain, alde bakarreko malgutasunari amaiera emateko, urteko egutegia eskatu genuen.

Zeintzuk dira egunerokoan egiten dituzuen lan zehatzak?

Eroskirentzat ekoizpenak egitea da gure lana, eta Eroskiren supermerkatuetako eta saltoki handietako eskaerak gauza-

tzen ditugu. Zehatzago esanda, Eroskiko elikagai ez galkorretan egiten dugu lan, baita konbentzionaletan ere, garbanzuak, moldeko ogia, patata frijituak, turroia... guztia. Lan-fisiko handiko lana da eta zama handiak hartu behar izaten ditugu gure gain. Lan-orduetan atsedetik ez hartzea jasangaitza da guretzat.

Langile guztiek tratatu berdina jasotzen duzue?

Ez, biltegian bazkideak ere badaude. Oro har, biltegia korridoreen arabera dago antolatua: batzuetan xaboia, ura eta pentua dago eta hori da gehienbat Cecosako langileok egiten duguna. Horietara, ordea, bazkideak ez dira sartzen. Hortaz, nahiz eta eskuz-esku lan egin dezakegun bazkideek zein langileok, lan jakin batzuk soilik guk egiten ditugu.

Hitzarmenari dagokionez ere, hitzarmen ezberdinak aplikatzen dizkigute. Guri, Madrilen sinatzen den estatu hitzarmena aplikatzen digute –abenduaren 23tik 26ra sinatu zutena– eta ez digute gaueko plusik ordaintzen. Eroskiko bazkideei, berriz, beste hitzarmen bat aplikatzen zaie: beren estatutuak dituzte eta aldi baterakoei, Bizkaikoa aplikatzen zaie.

Bizkaiko Elikadura Hitzarmenaren lan-baldintzak lortzea izan da zuen helburua, ezta?

Bai, hitzarmen horren alderik garrantzitsuena da hemen negoziatzen dela, Euskal Herrian, eta ELAk, sindikatu gisa, parte har dezakeela Bizkaiko elikagaien

“ ”

Guri Madrilen sinatzen den estatu hitzarmena aplikatzen digute eta Eroskiko bazkideei beste hitzarmen bat aplikatzen zaie

merkataritzako negoziazio mahaian. Cecosako langileoi aplikatzen zaiguna, ordea, saltoki handien hitzarmena denez, sindikatuak ezin du esku-hartu; izan ere, Madrilen negoziatzen dute. 1.770 orduko urteko lanaldia du hitzarmen horrek, soldatak txikiak dira eta ez dugu inolako plusik kobratzen. Bizkaikoak ia 50 lanordu gutxiago ezartzen ditu. Soldatari dagokionez ere alde handia dago, Euskal Herrian negoziata daitezkeen eskubide gehiago baitaude onartuta.

Grebako bost egunetan egindako pikete eta protestak eraginkorrak izan al dira?

Bai. Elorrioko biltegian piketeak egon dira egunero, herrian ikusgarritasuna emateko grebari. Baina bestelako ekintza batzuk ere egin ditugu: ibilaldiak eta martxak, batetik; eta enpresarekin bilera egiten ari ginela, Bilbon kontzentrazioa egin genuen, bestetik. Gatazka Elorriotik atera eta gizarteratzeko balio izan digute ekintza horiek. Finean, mediatiko xamarrak izan da.

Lantokira sartzen zirenean, grebara deituta ez zeuden bazkideekin harremana izan dugu piketeetan: jende askok txistu egiten zuen elkartasun gisara eta beste asko animoak emateko gelditzen ziren. Hala ere, egoera ezagutarazi baino lehen, esango nuke jendeak ez zekiela zein zen biltegiaren egoera.



Zenbateko jarraipena izan du, oro har, grebak?

Grebak %97ko jarraipena izan duela esango nuke. Jarraipen zabala. Biltegian, orotara, 300-400 langile gaude eta horietatik 130 gara Cecosako plantillakoak. 130 horietatik, zortzi langilek egin zieten uko lanuzteei.

Negoiazioen ondoren akordioa sinatzearen alde agertu zarete, zeinak besteak beste 2025erako soldatan %22,94 inguruko iguera dakarren. Horrez gain, zeintzuk izan dira gainontzeko lorpenak?

Lanean igarotzen ditugun zortzi orduak zenbatzea lortu dugu; PNG izeneko plus berri bat kobratzea, guztira 2.400 euro urtean; jaiegunak ordaintzea; antzinatasuna aitortzea, eta kontzeptu horretatik eratorritako zenbatekoak ordaintzea; gaurkotasuna %5 gehiago ordaintzea; 70 orduko lanaldi-murrizketa, zeinak opor egun edo norberaren aukerako egun gehiago izatea ahalbidetuko duen; eta azkenik, laneko osasunari dagokionez, biltegiatze lanak dakarren ahalegin fisikoa murrizteko beharrezko baliabide mekanikoak ezartzea adostu dugu. Hau da, benetako prebentzio-gaiak apli-



katzeko konpromisoa hartzea. Hori oso garrantzitsua da lanaldi luzeak eta higidura fisiko handia jasaten ditugun langileontzat.

Aurrera begira zer asmo duzue?

Orain atsedean hartzea tokatzen zaigu, baina aurrerago beharrezkoa izango da enpresarekin beste behin esertzea, oraindik ere hobetzeko dozenaka fakto-

re baitaude. Gure ongizatea dago jokoan. Borroka honekin mahai gainean kolpea eman dugu. Minimo batzuekin hasi behar genuen, eta dagoeneko lortu egin ditugu. Baina hau hasiera besterik ez da, oraintxe antolatuta baikara. Lan luzea dugu oraindik egiteko, 2025ean berriro negoziatu eta hobetzen joan behar dute, aplikatzen diguten hitzarmena atzera botatzeko. ●

Pertsonen
arteko zubiak
eraikitzen ditugu



FAMILIA BITARTEKARITZAKO
ZERBITZUA

BILBON, DONOSTIAN, VITORIA-GASTEIZEN ETA TOLOSAN

www.euskadi.eus/familiabitartekaritza



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA

DEPARTAMENTO DE JUSTITIA
ETA GENTE POLITIKATUO SALA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD
JUSTITIA Y POLITICAS SOCIALES

Minorizazio gorrian

Euskara gaur, datu demolinguistikoaren irakurketa oinarri hartuta

Iñaki Iurrebaso Biteri soziologoak iritzi artikulua hau *Telesforo Monzon elab* webgunean argitaratu du. Iurrebasok dio euskara heriotzatik gertuago dagoela normalizazio egoera batetik baino. Egoerak bi gauza eskatzen dituela adierazi du: egoeraren larritasunaren kontzientzia hartzea eta hizkuntza politika ausartak abian jartzea.

 IÑAKI IURREBASO BITERI /



Artikulu hau *Telesforo Monzon elab*-ek argitaratu du eta CC by-sa lizentziari esker ekarri dugu.


Hizkuntza politika eraginkor bat pentsatzeko eta abian jartzeko beharrezkoa da helburuak egoki finkatzea, eta horretarako, abiapuntua zein den argi izatea.

Euskararen minorizazio prozesuan bereziki bortitzak izan ziren XX. mendeko lehen bi herenak. Frankismo garaian bereziki areagotu egin zen euskal hiztun komunitateari lehenagotik ere gainera zetorkion patua: desagertzeko bidean zihoan ezinbestean. Zorionez, joera aldaketa bat gertatu zen 60ko hamarraldia-
ren inguruan, biziberritze prozesu bat jarri zen abian, eta hein batean geldiarazi eta itzulbiratu egin zen joera hura. Alabaina, gaur egun ere minorizazio egoera gorria pairatzen jarraitzen dugu. Gure lurraldean ditugun hizkuntzen arteko alde handia da, euskararen kaltetan betiere. Desoreka hori agerikoa da hizkuntza-
ren erabileran, non erdaraz (gaztelaniaz/
frantsesez) egiten diren zazpi elkar-
rizzketa bakoitzeko bat bakarra egiten den euskaraz. Egoera ez da hobea hizkuntza gaitasunari erreparatuta: hitzunen artean, %8 baino ez dira euskaraz errazago mol-



Ahozko hizkuntza-gaitasuna

16 urtetik gorako hiztunak, Euskal Herria, 2021(%)



ITURRIA: IÑAKI IURREBASOK EGINA, ISL-KO DATUETAN OINARRITUA

*2001eko proportzioen arabera kalkulatua

datzen direnak gaztelaniaz/frantsesez baino, eta, aldiz, hiztunen %83 errazago moldatzen dira bi hizkuntza horietako batean. Ez hori bakarrik. Horien arteko gehiengo handi bat elebakarra da, eta erdaraz bakar-bakarrik mintzatzen da. Gaitasunean eta erabileran, beraz, desoreka handia dago euskara-erdaren artean.

Argazkia osatzeko, funtsezkoak diren beste bi alderdi ere aintzat hartu beharra dago: lurraldean hizkuntza batzuek eta besteek duten nagusitasuna batetik eta hizkuntza bilakaera prozesuak bestetik. Lurraldean hizkuntzek duten nagusitasunari erreparatuta, gaztelaniaz/frantsesak nagusitasun ia erabatekoa dute. Badira oraindik euskara sozialki hegemonikoa den udalerri eta auzo batzuk, arnaguneak. Horietako eguneroko bizitzan euskara da nagusi eta bertako prozesu soziolinguistikoez, gainerako lurraldeetan ez bezala, bertako hiztunen gan euskara indartzera bultzatzen dute. Gune horiek, baina, pisu demografiko gutxikoak dira tamalez -herritarren %4 inguru besterik ez da bizi horrelakotan- eta azken urteotan ahultzera jo dute. Azken hogeitau urteotako joerak bere horretan jarraituko balu, hamarkada gutxitan desagertu egingo lirarteke euskara nagusi duten eremu geografikoak.

Euskararen aldeko jarrera indartsu azaltzen zaigu hiztunen artean, bizinahi handia duen komunitatea da gurea


Hizkuntza bilakaera prozesuek hiztunen bizitzan zehar izaten diren aldaketa linguistikoak aztertzen dituzte. Euskal Herrian nola gertatzen diren aztertuta, esan behar da prozesuok egun erdara indartzeko noranzkoan egiten dutela indarra. Jatorriz euskaldunak diren hiztunak erdalduntzeko joera handiagoa da jatorriz gaztelaniadunak/frantsesdunak zirenak euskalduntzeko baina. Fenomeno hori gaitasunean, erabileran eta lurralde nagusitasunean euskarak duen ahultasun handiaren ondorioa da, gure hizkuntza komunitatearen bizi indar ahularen erakusgarri zuzena. Ez da ahaztu behar, gainera, testuinguru orokorrak ere, bizitzarako beharrezko/ezinbesteko egiten dituztela gaztelania-frantsesa eta ez-beharrezko/bigarren mailako euska-

ra. Testuinguruak orokorrean lagundu egiten du, hortaz, hizkuntza menderatzaileak nagusitasun hori areagotu dezan, hizkuntza gutxituaren kaltetan.

Euskararen komunitateak baditu, dena den, indargune batzuk, eta horiek eusten diote bizirik. Herritar gehienek euskararen aldeko atxikimendua ageri dute beren iritzietan, eta erabili ere gehiago egiten dute espero izatekoa zena baino. Horrela, euskaraz hobeto moldatzen diren hiztunak hizkuntzarekiko leialak dira; eta erdaraz hobeto moldatzen diren elebidunek ere erabiltzen dute euskara erosotasun irizpideek aginduko luketena baino gehiago. Sozializazio- eta transmisio-prozesuekin zerikusia duten jokabideak ere indargune ditugu. Horiei esker, egun belaunaldi berriak euskaldunagoak dira bai gaitasunean baita erabileran ere beren gurasoenak baino, nahiz eta erdararen nagusitasunak argia izaten jarraitzen duen belaunaldi berrien artean ere. Herritarren sail zabalen euskaltzetasuna eta sozializazio prozesuetan komunitateak egiten duen ahalegina, beraz, ezaugarri positibo bereizgarri garrantzitsuak dira. Ez dira ezaugarri arruntak munduko hizkuntza komunitate gutxitu gehien artean eta, zalantzarik gabe, indarberri-

Euskarak irabazi eta galdu dituen hitzunik

Euren lehen hizkuntza eta egungo etxeko erabilera alderatuta. Hego Euskal Herria, 2011



Erabateko irabazia: lehen hizkuntza erdara izan eta gaur egun etxean nagusiki edo soilik euskaraz aritzen diren hitzunik.

Irabazi partziala: lehen hizkuntza erdara izan eta gaur etxean bietara aritzen diren hitzunik, eta lehen hizkuntza euskara-gaztelania biak izan eta gaur egun etxean nagusiki edo soilik euskaraz aritzen diren hitzunik.

Galera partziala: lehen hizkuntza euskara izan eta gaur etxean bietara aritzen diren hitzunik, eta lehen hizkuntza euskara-gaztelania biak izan eta gaur egun etxean nagusiki edo soilik erdaraz aritzen diren hitzunik.

Erabateko galera: lehen hizkuntza euskara izan eta gaur egun etxean nagusiki edo soilik erdaraz aritzen diren hitzunik.

Euskararen ordezkapen-saldo garbia: **-88.356**

Honela kalkulatzen da: erabateko irabaziak + (irabazi partzialak /2) - erabateko galerak - (erabateko galerak /2).

tze prozesu baterako ezinbesteko osagaiak ditugu.

Esandakoak esanda, egoera bi ezaugarriren bidez labur dezakegu. Lehen ezaugarria: egitateei dagozkien aldagai guztiek minorizazio gorriko egoera erakusten dute euskararentzat. Euskara-erdaren arteko desoreka handia da; euskara oso ahul dago erdaren aurrean bai erabileran, bai gaitasunean, bai lurralde nagusitasunean, bai hizkuntza bilakaeran eta baita sozializazio prozesuetan ere. Gauzak gordin adierazita, aldagai horiei buruzko zenbakiak erakusten dute gertuago gaudela hizkuntzaren heriotzatik normalizazio egoera batetik baino. Are gehiago, gertuago gaude heriotzatik balizko elebitasun orekatu egoera batetik baino. Egoeraren larritasun horrek, gainera, berarekin dakar berez "hizkuntza gutxiutuak gutxiagotzen" jarraitzeko joera, kontrako norabidean hizkuntza gutxiutuaren aldeko jardura indartsua abian jartzen ez bada behinik behin.

NEURRI AUSARTAK BEHAR DIRA

Bigarren ezaugarri nagusia honako hau genuke: aurrekoarekin kontrastean, euskararen aldeko jarrera indartsu azaltzen zaigu hitzunen artean, bizinahi handia duen komunitatea da gurea. Bizinahi hori

iritzietan ez ezik, hitzunen portaeretan ere gauzatu izan da azken 50-60 urteotan, XX. mendeko 60ko hamarraldian euskaltzaletasun eta abertzaletasun indarberriak bultzatuta abiatu zen euskalduntze olatu handiaren eskutik. Olatu handi hartan parte hartu duten banakako euskaldun eta euskaltzaleen ahaleginak gabe, euskalgintza antolatua bultzada eta jarduna kontuan hartu gabe, erakunde batzuetatik euskararen alde egin diren politikak izan ez balira, gutxitze prozesuak argi eta sendo asko jarraituko zukeen, erdaldun elebakarren multzoak handitu egingo ziratekeen eta euskaldunenak jaitsi, erabilerak ere sendo egingo zukeen atzera, transmisio prozesuetan euskarak duen pisua are gehiago txikitu izango zatekeen, eta abar. Bizinahi handi horrek eraginda egin den ahalegin handiari eskerrak eutsi dio komunitateak bizirik, alderdi batzuetan aurrerapauso esanguratsuak emanez eta beste batzuetan kontrako joerei kontra eginez.

Testuinguru horretan, euskararen komunitateak bizirik jarraitzen du, indartzera eta ahultzera bultzatzen duten aldibereko joera kontrajarriekin; aldi berean gertatu dira bai euskararen kaltetan izan diren ordezkatzeko dinamikak eta baita hizkuntzaren jarraipena eta indarber-

ritzea dakarten dinamikak ere. Azken hogeitazehazki, 1960 inguruan hasitako indarberritze bulkada ahuldu egin dela eta geldotze aro batean sartu garelako erakusten dute datuek. Horretan eragin dute, besteak beste, mundu globalizatuko aldaketa ekonomiko, teknologiko, sozial eta kultural indartsuek eta Euskal Herriko demografian, jaiotze-zein migrazio-fluxuetan izan diren aldaketek. Pentsatzekoa da joera horiek areagotu egin daitezkeela etorkizunean.

Horiek horrela, bizi dugun minorizazio egoera gorriak eskatzen du lehenik egoeraren larritasunaren kontzientzia hartzea eta bigarrenik hizkuntza politika sendo eta ausartak abian jartzea euskararen alde. Euskara lehentasunetara ekartzea eta neurriko hizkuntza politikak lantzea ezinbesteko zeregina izango ditu herri honek hurrengo hamarraldietan, mendeetako katea etetea nahi ez badugu behintzat. ●

Iñaki Lurrebasori elkarrizketa (Larrun, 2023ko martxoa):



Doktore-tesia:





ASAF/ DUTCH WIKIPEDIA

HIRU IZAERA ERLE BILAKATZEKO



BALERDIPEKO ERLEAK
MATTIN JAUREGI ETA
INAXIO ARIN

Erlauntzaren jaiotza erregina estali baten errutearekin hasten da. Hemen ere betiko, arrautza ala erregina ote zen lehen...

Erreginak bere ugalketa aparatuan bi boltsa bereizten ditu: arrautzen poltsa (obuluak) eta espermateka (esperma biltegia). Erruterako momentuan erreginak ugalketa aparatua abaraska barruan sartzen du, eta abaraskaren neurriak bereiztuko du jaiokoden erlearen sexua: abaraska estua denean, erreginaren ugalketa aparatua estutzen da arrautza eta esperma elkartuz (arrautza ernaldua); eta abaraska zabala denean, ez da erreginaren ugalketa aparatua estutzen eta arrautza soilik erruten da espermarik gabe (ernaldu gabeko arrautza). Ernaldutako arrautzatik erle langilea eta erregina jaioko dira (emeak) eta,

aldiz, ernaldu gabeko arrautzatik erlamandoa (arra).

Gauza jakina da tximeleta ez dela tximeleta jaiotzen, harra izaten dela tximeleta izan aurretik, bada, erlea berdin. Arrautzatik larbara igaroko da, larbatik ninfara, eta ondoren izango da erle. Erle izateko lehenik larba izan behar.

Arrautza izatetik erle izaterako prozesua edo metamorfosia, abaraskaren barruan egiten du: lehen hiru egunak arrautza moduan, ondoren larba fasera igarotzen da, fase hori pasata ninfa bilakatzen da, azkenik erlea bere osotasunean jaiotzeko.

Erlea jaiotzen denetik 40 egun inguru bizi dela esaten dute, baina erle izan aurreko beste 21 eguntan ere zer edo zer biziko da, ezta? Edo horiek larbaren eta ninfaren bizitzak dira? Hiru izaera erle bilakatzeko. ●

egonarrria

Lurrari entzuten dion saioa



Haragi sintetikoa hemen da:

Aitor Aranburu ekologikoan ari den abeltzaina etorkizuneko elikaduraz mintzo. Dagoeneko ikusentzungai.

Bere gaztainondoen itzalpetik:

Akaitz Sarasola, Lizartzako gaztain zale gaztea. Dagoeneko ikusentzungai.

Klima aldaketa lehen lerrotik: nola bizi dute laborariek?

Iorea Lizarreta, Nafarroako Hazialdeko proiektuko kidea, laboreen erronkez. Urtarrilaren 24tik aurrera ikusentzungai.

Lurraren aldeko borrokak, errepresioa eta garaipenak

Ostia kolektiboko Hartzeta Lopez Adan eta Joana Detchart mahai-inguruan. Urtarrilaren 31tik aurrera ikusentzungai.

A ZE FAUNA!

ILARGI ALA EGUZKI, HANDIETAN HANDI



ENEKO BACHILLER OTAMENDI
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Gure portuetan “atalu” edo “atalo” modura izendatzen da, baina ez da portu-ratzen den arrainetakoa; itsasoan dabilzantzat ordea, aspaldiko ezaguna da. Forma zapala eta obalatu du, eta ahoa une oro irekia, globo-arrain baten aurpegia oroitaraziz. Atzealdean, gorputza luze baino altuagoa egingo duten bi hegats, bat gorantz hegazkinen isatsen antzera, eta bestea beherantz belaontzien gila modura. Itxura zaharkitua izan lezake, baina arrain gehienak sortu eta 500 milioi urte beranduago jaioa izanik, arrainen eboluzioan gazteenetakoa da... eta, hezurdun arrainen artean, handiena.

Eme bakar batek 300 milioi arrautza izan ditzake; eta errute bakoitzean 5 milioi inguru askatuko ditu (ez dago halako kopurura hurbiltzen den beste animalia ornodunik). Horrela, arrautza horietako batzuk heldu izatera iristeko aukerak handitzen ditu, eta ziurrenik hori da espezieak bizirauteko izan duen estrategia garrantzitsua. Arrautza bakoitzak, itsasoko harrapakariaren bazka izateari izkin egitea lortuz gero, larba-fase bikoitza igaro beharko du (arrain gehienek fase bakarra dute): lehenean, 1,5 milimetrorekin, familia-kide duen globo-arrainaren itxura du, borobila eta arantzatsua; bigarrenean ordea, zapaldu egiten da eta helduek izango duten forma hartzen du, 3-4 zentimetrorekin. Indibiduo horrek, bizirautean badu bederen, bere pisua 60 milioi aldiz biderkatuko du, batz beste 1,5-1,8 metro eta tona bateko pisua hartzera. Pertsona bat 50 elefanteren pi-



ENEKO BACHILLER OTAMENDI

sua izatera helduko balitz bezala. Pentsa, haren azalak 7 zentimetroko lodiera har dezake, eta 3 metro eta 2,5 tonako aleak ere ikusi izan dira.

Mundu osoko ozeanoetan zehar, kostalde nahiz itsaso zabalean, atalua hainbat modutara ikus daiteke, ur-azaletik hurbil dabilenean bederen. Igerian diharduenean, hegats dortsala uretatik ateratzen du, marrazoa bailitzan. Bestetan, ur azalean “etzanda” ageri da. Horrela, itsas-hegaztiei nahiz arrainei haren azalean itsasten zaizkion 40 bizkarroi motaz osatutako menua eskaintzen die. Gaez etzaten denean, arrantzaleen argien aurrean dirdiratsu ageri ohi da; beharbada hemendik dator kio “ilargi-arrain” izena. Ingelesek, berriz, egunez hartutako irudiari erreparatuko zioten, “sunfish” izendatzean (“eguzki-arrain”). Eguzkia hartuz ematen dituen atsedenaldira hauei esker gorputzeko tenperatura erregulatzen du. Izan ere, atalua oro har animalia lirdingatsuz elikatzen den arren (batez ere marmokak, salpak eta sifonoforoak jaten ditu), egunez 500 eta 800 metro arteko sakoneratara murgildu ohi da, bestelako arrain eta itsas-hondoko ornogabeen bila (krustazeo, molusku eta ofiurak, besteak

beste). Bidaia horietan 5 gradutik behe-rako tenperaturetara irits daitekenez, ezinbestekoa du berriro ur-azalera igo eta eguzkitan epeletzea.

Arrain honek arrantzaleen nolabaiteko begirunea bereganatua du. Animalia motela denez, sarritan geratzen da arrantzatza-sareetan trabatuta (ustekabeko harrapaketetarako arrisku bereziko espezie modura izendatua dago). Aitzitik, ataluak itsasora itzuli ohi dira, gehienetan, bizirik. Eskerrak arrantzaleei, edo kartilago asko eta haragi gutxi duen (hots, gure lehenasun kulinarioei).

Dokumentaletan harriduraz ikusi dezakegun munduko arrainik modernoen uste baino gertuago dugu. Izan ere, ale handienak ur tropikalagoetan topatu ohi diren arren, udazkenean, Getarian bertan, 200 aletik gorako atalo gazteen sardak ikusi izan dira (“topagunea” San Antongo itsasargi parean?). Zerbaki handiekin jarrarrituz, berotu ahala itsasoak marmokez beteko balira, kalkuluaren arabera ipar-ekialdeko Atlantikoan ataluen eguneko 2.600 tona marmoka jateko ahalmena izan dezakete. Handiak, motelak eta bitxiak, baina oraindik nahiko ezezagunak dira. Agian, hobe horrela. ●

ATALUA

Mola mola

TALDEA: Ornoduna / Arraina

NEURRIA: 1,50-1,80 metro
(emeak > arrak)

NON BIZI DA? Mundu osoko ozeanoetan, nahiz kostaldetik hurbil. Gazteak taldean; heldu aroan bakarrik edo beste atalu batekin ibiltzen dira.

ZER JATEN DU? Animalia lirdingatsuk (bereziki sifonoforo eta marmokak), arrainak, zooplanktona, krustazeoak eta moluskuak.

BABES MAILA: Espezie zaurgarrien Zerrenda Gorrian dago 2015etik, ustekabeko harrapaketak jasateko arrisku handia baitu. Ezin da arrantzatu.

MAITE DUZUNAREN BIZKAR

Elorriotik deitu zidan lehengo batean irratira saioko partaide batek, okaran bat txertatu nahi zuela. Lana noiz egin jakin nahi zuen, baina baita elorria zuela eta ea mentuoin egokia ote zen okaranarentzako. Zer elorri zuen galdetu nion, zuria ala beltza. Biak, erantzuna. Eta nik elorri beltzean txertatzeko, okarana basaranean. Genetikoki hurbilagokoak dira eta txertatutako mentua oinaren gainean errazago itsatsiko da. Biak *Prunus* generokoak dira, okarana *Prunus domestica* eta elorri beltza *Prunus spinosa*. Elorri zuria, aldiz, beste genero batekoa da, *Crataegus*, familian urrunagokoa eta espezie zabalduena *Crataegus monogyna* da. Esan nion hobe zuela elorri zurian txertatzeko lanik ez hartzea, elorri zuria ez zuela okaranaren mentua maitatuko. Politik entzun behar izan ditut, bada, kallean "maitatu" horrengatik. Nola maitatu elorriak? Zer arraiokeria den hori!

Landareek maitatu ezin izango balute bezala... Baina maitasuna ez al da bada horixe? Maita batzuk eta beste batzuk ez. Geuk bezalaxe. Amak sekula miaztu gabeko sasiardia bezala botako luke elorri zuria okaranondoaren mentua, ez du maitatuko.



Platanoak eta makalak. Nabarmenak dira zein diren makalak, mihura maite dutenak.

Landareen arteko maitasunak historia luzea du. Adibide ugari dago, baina orain zuhaitz eta arbola biluzietan hain garbi ikusten den mihura (*Viscum album*) borobilaren maitasunen historia luze-zabal ederrekoa da.

Zuhaitz eta arbola askok mihura maite dute, eta haien adarretan sustraiak bermatzen ditu eta ezartzen da. Sustrai horiek ostantatzailearen izerdia zurrupatuko dute, haren bizkar bizi-tzeko. Badakizu, maitasuna ematea da, eman eta eman; nahiz eta hartzaileak zeu akabatu.



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS


Askoren gainean ikusiko duzu mihura, ehundik gora espezieren bizkarroi dela diote: sagarrondo, udareondo, mizpira, makal, lertxun, sasiakazia, ezki, elorri zuria, sahas eta zume, arbendolondo, lizar, urki, otsolizar, astigar, hurritz, xarma, gaztainondo, gereziondo, intxaurrondo, almez edo basaka eta abar. Haritzen edo zumarren bizkarretan ez duzu berehalakoan topatuko. Aline Raynal-Roques botanikari frantziarrak zioen haritzak hesi kimiko bat eraikitzen duela, mihuraren sustraiak adarrean sartzea eragozteko; haritz oso bakan batzuek gabezia genetiko bat dutela eta hortik apur horietan mihura sartzea. Eta ez omen da inoiz ikusi platanoan edota pagoan.

Gure etxepeko erriberatan erriorearen ertzean platanoa oso zabaldua da, eta tar-teka makalen bat ere bada. Nabarmenak dira zeintzuk diren makalak, mihura maite dutenak. Platanoak hor bizi dira ageriko maitalerik gabe; beno, ez, oso gustuko dituzte platanoak liztor asiarek, beren habi erraldoiak maiz ikusiko dituzu platanoaren bizkarretan. Eta burumaitale ona da, baita ere, mihura: beste mihura bat maita dezake eta haren bizkarrean, bere bizkar, bizkarroi bizi. ●



“*Ekoizpen ekologikoak bermatzen digu naturaren baliabideak zaintzen ari garela, eta hori onura da gizarte guztiarentzat.*”

EDORTA SALVADOR
Okintza-prozesuetako aholkularia
eta irakaslea, IRUÑEA



**ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!**



cpaen.org
navarraecologica.org

ALLOTARRA

LIZARRALDEKO OLIBA EKOLOGIKO EKOIZLEEN ELKARGUNEA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Duela hogei urte inguru sortu zuten Allotarra elkarteak Lizarraldean oliba ekologikoak ekoizten zituzten zenbait ekoizleek. “Geroztik, elkartera kide gehiago batzen joan dira, eta pixkanaka olibondo gehiago jarri ditugu”, azaldu du Eusebio Gaintza kideak. Gaur egun, 60 bat hektarea olibondo dituzte hamar kideren artean. Arroniz barietatearekin egiten dute lan, batik bat, eta barietate hori zaintzea eta zabaltzea dute helburu. Duela sei urtetik, olio-errota ere martxan dute Deikaztelun. “Oliba egiteko inguruko beste errota batzuetara eraman beharra genituen olibak, eta, azkenean, erabaki genuen gure instalakuntzak egitea aukera ona zela”. Ekoizpen nagusia olibena izan arren, garagarra, ilarrak, boilurrak eta bestelakoak ere ekoizten dituzte elkarrekin zenbait kidek.

OLIBAREN HARAGIARI EZ EZIK, HEZURRARI ERE ZUKUA ATERAZ

Allotarra elkartearekin lotura estua duen Biosasun proiektuak du olio-errota Deikazteluko lurretan, eta elkartetik hari saltzen dizkiote olibak oliba egiteko. “Lehen, Arronizko Mendia olio-errotara generaman gure produktua, baina, han ez dute ekologikoan lan egiten. Gerora, Ekoloren errota txikia sortu zen han bertan, guk ere parte hartu genuen sorreran” dio ekoizleak. Denborarekin, baina, haien olio-errota propioa sortzea erabaki zuten taldekiek, oliba olioaren inguruko zenbait ikerketa egin eta gero. “Gure errota oso berezia da, oliba polifenol kantitate altuekin ekoizten baitu”, azaldu du.



Baina, zer da polifenola? Odoleko lipidoak oxidatzen dituen babesten dituen antioxidatzaile naturala da. Olio kantitate txikia ekoizten dute Deikazteluko errota ingurukoekin alderatuta, baina kalitatean irabaztea da bilatzen dutena, polifenoletan begia jarrita. Eta, olioaz gain, olibatik eratorritako bestelako produktu berritzaileak ere bultzatu dituzte, hala nola, kefirra eta konbutxa. “Birbizi proiektua sortu genuen olio-errotako soberakinak aprobetxatzeko: oliben hezur lehortua eta oliba-ura ateratzen ditugu”. Hezurak, txikituta, abereentzako bazka moduan erabiltzen dituzte, eta oliba urarekin, berriz, aipatutako probiotikoak ekoizten.


DENDA EKOLOGIKOA ALLON

Allotarra elkartearen lana ez da, dena

den, oliba ekoizpena mugatzen, 2019tik produktu ekologikoen denda ere martxan baitute Allon. Hurbileko ekoizleek elikagaiak saltzen dituzte, eta tokian bertan erosteko aukeraz gain, webgunearen bidez egiteko aukera ere eskaintzen dute. “Lizarraldean ekoiztutako piperrak, zainzuriak, barazkiak... denetik saltzen dugu, baina baita hemen ez dauden eta urrunagotik ekartzen ditugun produktu ekologikoak ere: txakolina, laranjak...”.

Lau langile ari dira egun Allotarra proiektuan lanean. Denetik egitea dagokiera azaldu du Gaintzak: ikerketa, nekazaritza lana nahiz dendako arreta. “Aurrera begira, egitasmo gehiago ere baditugu esku artean. Esaterako, boilur ekoizleekin harremanetan gaude horri lotutako produktu bereziak ekoizten has-teko”, aurreratu du. ●

Norena da Taiwan?



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Taiwan, K.a. 323. urtea. Txinako espedizio batek uhartea esploratu zuen eta, hala, Taiwan lehenengoz erregistratuta geratu zen txinatar artxi-boetan. Baina mende luzez ez zen bertako jatorrizko populazioan aldaketa nabarmenik izan; uharteko giza arrastorik zaharrenak duela gutxienez 20.000 urtekoak izan arren, austronesiar nekazariak duela 6.000 urte okupatu zuten.

XVII. mendean iritsi zen populazio aldaketa, europarrekin batera. Portugaldarrek Formosa izena jarri zioten, espainiarrek irlaren iparraldean hainbat kolonia ezarri zituzten eta 1624tik 1662 arte herbehere-tarren esku egon zen. Orduan, txinatarrek kanporatu zituzten europarrak Taiwanetik. Eta 1683an Qing dinastiak Ming dinastia mendean hartu zuenean, Taiwan ofizialki Txinaren esku geratu. Prozesu horretan, Txina kontinentaleko asaldura politikotik eta eskasia ekonomikotik ihesi, txinatar oldeak Taiwanera joan ziren, eta austronesiar populazioa ia desagerrarazi zuten. Nagusiki Fujian probintziako hokloak eta Kantongo hakkak ziren; Taiwan-ko egungo biztanle gehienak bi migrazio olde horien oinordekoak dira.

1895an, Txinak lehen gerra sino-japoniarra galdu ondoren, uhartea irabazle japoniarren esku geratu zen. Baina Bigarren Mundu Gerraren amaieran Txinara itzuli zen; Txinako Errepublikak, 1912an sortua, aliatuen parte zen eta, beraz, AEBen oniritzia izan zuen. Baina handik urte gutxira, 1949an, Mao Zedong buru zuten indar komunistek




ANN WANG

Chiang Kai-sheken gobernua mendean hartu zuten. Chiangek eta bere jarraitzaileek Taiwanen hartu zuten babesa eta uhartean Txinako Errepublikaren jarraipena ezarri zuten, diktaduraren jarraipena, alegia. Txinako Herri Errepublikak uhartea erreklamatzeko jarraitu zuen eta AEBetako presidente Trumanek zazpigarren flota Taiwango itsasartera eramatea erabaki zuen, teoriarik Txina kontinentalaren eta Taiwanen arteko gatazka saihesteko. Praktikan, interbentzioak ez zuen gerra zibila eten eta, besteak beste Izu Zuria bultzatu zuen: Taiwango Gobernuak 140.000 pertsona espetxeratu eta hil zituen, komunista izatea leporatuta.

Mende honetako Taiwango hauteskundeak emaitzek eragina izan dute

Txina-Taiwan aferan. Duela bi asteko hauteskundeak Txinarekin bat egitearen aurka dagoen PPD alderdiak irabazi zituen. Lai Ching-te hautagaiak independentziaren alde lan egingo duela aginduta, Txinako Gobernuarekiko tentsioa areagotu egin da, interbentzio militar baten mehatxuarekin batera.

Taiwanen eta AEBen arteko itun formalik ez dagoen arren, eta ofizialki Taiwanen independentziaren alde ez dagoela esanda ere, Washingtongo gobernuak adierazi du arma defentsiboak utziko dizkiola Taiwan. Joe Biden presidenteak esan du AEBek Taiwanetikiko duten konpromisoa "harria bezain tin-koa" dela, nahiz eta azken 80 urtetan uhartearekiko jarrera nahi bezala ego-kitu duten, kontraesanak kontraesan. ●



A. DORISON / S. ROSTAIN

Orellanak arrazoi zuen

XVI. mendean Francisco de Orellana espainiar konkistatzaileak Amazonas ibaian gora nabigatu zuenean, ibaiaren alde banatan hiri handiak zeudela esan zuen. Inork gutxik sinistu zion orduan, eta are gutxiago hurrengo mendeetan, konkistak berak suntsitutakoaren arrastorik aurkitu ez zenean. Baina Stéphen Rostain arkeologo frantziarrak Ekuadorreko Ama-

zonía aztertu du azken urteota, LiDAR teknologia erabiliz, eta emaitza *Science* aldizkarian argitaratu berri du: 6.000tik gora plataforma eta egitura identifikatu ditu, "errepide" sare zabalaren bidez lotuak, eta drainatze-sistema konplexuak erabiltzen zituzten labore lurrez inguratuak. 15 hiri identifikatu ditu guztira. Beraz, konkistatzaileak arrazoi zuen. ●

Ingelesez, katalanez eta galegoz ere bai



Argia.eus-ek Orioko Udalaren antzeko proba egingo du.

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Erabiltzaileen eskuetara pronto iristen dira hizkuntza-teknologia berriak, baina horien sorreran lan handia eta interes asko daude (ez naiz sartuko horretan, gaur oso zen jaiki naiz eta ez daukat batere haserretzeko asmorik). Baina nola aldatuko dute gizarte hurrengo urteetan hizkuntza-teknologiak? Zein eragin izango dute euskara bezalako hizkuntza gutxituengan? Zein dira euskaldunon interesak gai horiei dagokionez? Halako gaiak ikertzen dihardutenak ARGIAra hurbildu dira proposamen batekin.

Itzultzaile neuronala ezagutzen? Zertarako erabiltzen dugu? Zertan hobetzen du gure lan-funtzionamendua? Zertan hizkuntza-kalitatea? Zein ate ireki ditzake euskara gehiago erabiltzeko? Zein gatazka eragin dezake? Zein gaitasun berri garatzen lagun diezaguke? Itzulinguru du proiektu honek izena, Soziolinguistika Klusterrak eta EHUKo Innoklab ikerketa taldeak sustatu dute eta ondorengoek ere parte hartzen dute: Elhuyar, AEK, Orain adimen artifizialeko zentroa, Osakidetza, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Hekimen. Aipatutako galderei erantzun bat eman nahian jo dute gizarteko hainbat sektoretara (hedabideak, euskaltegiak, osasungintza, adibidez). ARGIAri (eta beste 25 bat

erakunderi) esperimentu bat egiteko proposatu diote: itzultzaile neuronalari gaur egun ematen ez diogun erabilera bat ematea denbora-tarte zehatz batean, sortzen diren distortsioak, hobekuntzak eta ikasgaiak aztertzeko.

HAUSNARKETATIK ESPERIMENTURA

Proposamenaz hausnartu da ARGIA eta gai interesgarriak mahai gainera-tzeko balio izan du. Adibidez, interesatzen al zaio ARGIAri bere edukiak gaztelaz eta frantsesez eskueran jartzea? Ondorioa, garbia: ez, "ez baitugu nahi euskaraz dakien, baina gaztelaz edo frantsesez irakurtzea errazagoa egiten zaionari, orain arte ARGIA euskaraz irakurri duen hori, aplikazio honen bidez gaztelaz edo frantsesez irakurtzen has dadin", azaldu digute. Bestalde, ARGIAren helburua bada sortzen dituen edukiak ahalik eta gehien zabaltzea, beti da interesgarri beste hizkuntza batzuetara itzulita erabiltzaileari eskueran jartzea. Hortik sortu zen *Argia english* bera. Eta, noski, jakitun teknologia berrietan euskara egokia bermatzeak duen garrantziaz. Beraz, aurrea esperimentuarekin. Baina zer egin ARGIArentzat erabilgarri? Itzultzaile neuronala ARGIAren mesedetan erabili



ZOKKETA

Errigorako hiru saski eta bi lagunentzako bina otordu Azpea upategian

Errigorarekin dugun elkarlanaren fruitu, bi lagunentzako bina otordu zozketatuko ditugu ARGIAko kideen artean. Irunberriko Azpea upategian bisita egiteko eta bazkarirako gonbidapenak dira, martxoaren 9rako. Horrez gain, hiru saski ere zozketatuko ditugu.

Zozketan parte hartu nahi duten ARGIAko kideek email bat idatzi beharko dute komunitatea@argia.eus helbidera edo telefonoz deitu (+34) 943 37 15 45 zenbakira, **otsailaren 5a baino lehen**, kidearen izen abizenak adierazita.

Errigorak hamar urte bete berri ditu Nafarroako hegoaldeko produktak Euskal Herri osora zabaltzeko eta horren bidez zonaldeko euskalgintzari ekarpena egiten. ARGIA bidelagun izan du ibilbide horretan.

nahi badugu, baina gaztelaz eta frantsesera gure edukiak itzuli gabe, baina beste hizkuntza batzuetara zabaltzeko asmoz... Bingo! Argia.eus webgunea ingelesera, katalanera eta galegora itzultzeko sistema garatu.

Otsailaren 1etik 29ra bitarte egingo da esperimentua. Klik bakarrean, itzultzaile neuronala erabiliz, automatikoki aldatuko da argia.eus orrialdea edo bertako edozein albiste nahi dugun hizkuntzara. Orioko Udalaren webgunea (orio.eus) ikus dezakezue adibide modura, antzeko zerbait egitea baita asmoa (webgunearen goialdean, eskuinetara, Elia funtzioa). "Badakigu akatsak egongo direla testuetan eta ahaleginduko gara pixkanaka, detektatzen ditugunak zuzentzen. Euskara kontuan duten teknologia berrien garapenerako laguntza izan litekeelako egingo dugu esperimentua", azaldu digute ARGIAko kideek.

Laster ikusiko dugu emaitza. ●

LITERATURA

Hautatua den bakardadearen testigu: *solitude*

Literatura: bakardadearen ispilu eta bakardaderako sostengu artikuluan, hautatua ez den bakardadea literaturak nola erakusten duen eta nola sostengatzen duen ikusi genuen. *Literatura: komunitatearen sostengu* artikuluan, berriz, bakardadea transformatzeko

komunitateak duen balioaz hitz egiten duten hainbat libururen adibideak ekarri genituen. Hirugarren honetan, eta printzipioz gaiarekin amaitzeko asmotan, hautatua den bakardadeaz hitz egiten diguten hainbat liburu ekarri nahi nituzke orriotara.

 AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Bakardadearen gaiari buruzko ikerketa pertsonala duela urte pare bat hasi nuen, jendez inguratuta egon arren bakardade-sentimenduak erraiak hartu zizkidanean. Egoera maneiatzeko zaila izan zen: beldurra, maitatua ez sentitzea, edo duda etengabea gisako emozio deserosoak. Sentsazio hori apaldu zenean soilik ahal izan nuen abiatu gaiari buruzko ikerketa. Orduetik, bakardadea gai gisa lantzen duten materialak irakurtzen jarraitu dut, eta ARGIAN bakardadeari buruz idatzi nituen bi artikulua desberdinak lirarteke orain.

Begirada hori aldatu duen liburuetaiko bat da ondorengo hau: Emily Whiten *The empty room. A memoir* (Gela hutsa. Memoria bat). Oinarrizko liburua dela esango nuke, autobiografia eta saiakeraren artean dagoen materiala. Bakardadea sentitzen duen autoreak gertatzen zaionari hitzak eta hausnarketa jartzen dizkio bere esperientziatik abiatu eta irakurgaietatik ateratako ondorioekin txirikordatuta. Kontaketa pertsonala beste pertsona batzuen testigantzekin eta irakurketa soziologikoarekin tarte-

katzen du eta, aldi berean, gaiari buruzko datuak eta teoriak, ikerketen aurreapenak eta ondorioak aurkituko ditugu. Liburua koktel horren emaitza da.

Bakardadearen gaira filosofiatik gerturatzen den *De lege Hemel* (Zeru hutsa. Bakardadearen filosofia bat), Marjan Bouwmeesterren liburua, oso bestelakoa da; trinkoa da eta beste erreferentzia mota bat erabiltzen du. Ez da modu hain arinean irakurtzen, baina abiatu nuen ikerketa hori ontzeko pistaren bat eman dit. Liburuaren hasieran apunte interesgarri hau egiten du: ingelesak bakardadea izendatzeko egiten duen bereizketa bat aipatzen du, *solitude* eta *loneliness*. Horrela dio 20. orrian: “Paul Tillich filosofoaren hitzetan *solitude* hitzak bakarrik egotearen loria adierazten du, eta *loneliness*-ek, aldiz, bakarrik egotearen mina”.

BAKARRIK EGOTEAREN LORIA

Orain arte *loneliness* izan dugu hizpide artikuluetan. Baina *solitude*-ri buruz ere hitz egingo dugu, baita hautatzen den bakardadeaz ere. Denok erraz errekonozituko dugun pertsonaia literario ba-

tekin hasiko naiz gaurkoan. Ea nor den asmatzen duzuen: lotsagabea da, kaotikoa, irudimentsua eta ausarta. Inkonformista, errebeldea eta lagun laguna. Urrezko txanpon ugari ditu eta ekonomikoki independentea da. Indar izugarria du eta animalia biren konpainian bizi da, tximuaren eta zaldiaren konpainian, eta ez du gurasorik. Pekaz betetako aurpegia du, ilegorria da eta koloretako jantziak erabiltzen ditu. Jakina, Pipi Galzaluze ezagunari buruz ari naiz.

Hautatua ez den arren, eta bereziki aitaren faltari buruz malenkoniaz hitz egiten badu ere, bakardadea *solitude* da berarentzat: loriatsua, eta emozioz eta aukeraz bete. Esango didazue lagunak badituela, eta animaliek konpainia ederra egiten diotela. Eta, bai, horrela da. Baina Pipi bere bakardadeaz kontziente da, eta bere bizimodua egiteko erabiltzen du. Horregatik da gai, hain zuzen ere, besteek espero ez duten hori izateko, desberdina eta boteretsua.

Hari horri tiraka datoz hurrengo bi liburuak: Antxine Mendizabalen *Emakume burugabea* eta Miren Agur Meaberen *Begiak zerumugan*. Lehenengoaz zeha-

tzago idatzi nuen ARGIAren 2700. aleko liburu kritikan, baina poesia eta ilustrazioa nahasten dituen liburu horretako protagonista barne bidaia batean murgiltzen da. Bakarrik egiten du bidaia, bere barruarekin konektatzeko, eta horrela inposizio sozialetatik urrun eraiki ahal izateko bere nortasuna. Protagonistarentzat bakardadea hautua da, eta beteta sentitzeko behar duen espazioa eta denbora eskaintzen dizkio honek.

Bigarrenari buruz, zer esan. Miren Agur Meabek idatzi eta Ane Pikazak ilustratutako liburua altxorra da. Kasu honetan ere poesia eta irudia nahasten dira, irakurketa sensorial oso bat eskainita. Pertsonaia bakarria ezagutuko dugu: protagonista. Ezaguna duen egoera batetik ezezaguna duen errealtate batera abiatzen da pertsonaia, eta nahitanahiez eman beharko ditu hainbat urrats; bakarrik, gainera. Hasierako pasarteak ilunagoak badira ere argitasun bila egindako bide baten kontakizuna da. Hizkuntzaren erabilera miresgarria egiten du Meabek, eta hitz jolasekin, poemen tonuekin edo hitzen hautuak modu intuitiboan erakusten digu zerumugarako bidea. Pikazaren irudiek ere koloreekin eta sinbologiarekin eskaintzen digute barne mapa. Bakardadea, barruan bilatzeko aitzakia paregabea da liburu honetan.

HAINBAT AIPU HAUSNARTZEKO

Bakardadea hautatu eta beharrezkotzat jotzen duen norbaiten hitzak aurkituko ditugu May Sartonen *Journal of a solitude* (Bakardade baten egunerokoa) liburuan. Honela dio hasierak: “Hemen hasiko naiz. Euria ari du. Leihotik astigarra ikusten dut, orrietako batzuk horitu egin dira, eta Punch, lora, bakarrik hitz egiten entzuten dut. Euria, berriz, leun-leun leihoan pilatzen. Aspaldian lehen aldiz, bakarrik

nago hemen, bizitza 'errealari'ekiteko. Harrigarria da hori: ez lagunak, ezta maitasun sutsuak ere, ez dira nire bizitza erreala, gertatzen ari dena edo gertatu dena arakatzeko denborarik ez baldin badut. Bizitza oso lehorra izango litzateke, elikatzen eta erotzen gaituzten eternaldi horiek gabe, baina hemen bakarrik nagoenean soilik naiz osotasunean bizitza dastatzeko gai, eta etxeak eta biok lehenengo elkarrizketak hasten ditugu”.

Garbi erakusten du autoreak bakardadeak osatzen duela bere bizitza. Bakardadeak bere bizitzari zentzua emateko denbora eta espazioa ematen dio, barne gatazkak begiratu eta hausnartzeko aukera, bere buruarekin egoteko parada.

Bakardadeari buruzko artikulu sorta pentsatu nuenean argi izan nuen hau izango zela azkena. Lehenengo bakardadeak eta indibidualismoak dituen alde mingarriak erakusteko beharra sentitu nuen, naif izatetik urrundu nahian edo. Eta bakardadearekin lotutako nire esperientzian gertatutako ordena jarraitzeak zentzua zuelako niretzat. Bakardade hautuak eta *solitude* deitu diogun bakardadeari lekua egin nahi izan nion, ordea.

Ikusi bezala, literaturak esperientzia hori ere jasotzen duelako eta bakardadeaz gozatzea ederra izan daitekeelako bide honetan ikasi dudana gatik.

Urtarrilaren 4ko *Berria* egunkarian Maixa Utrera Puellesek hainbat adituren iritzia eta begirada jaso zituen. Bakardadea idealizatzeak dituen arriskuak aipatzen dute adituek. Baina gure burua ezagutu eta aldaketak egiteko praktika beharrezkoa dela ere esaten dute: “Introspektion eta niaren bilaketan jarri du arreta Aritzetak: ‘Bakarrik egoten ikasi nahi baduzu, barruan dituzun altxor eta iluntasunak identifikatu eta maitatu behar dituzu. Eta, paradoxikoki, besteekin egoteko eta zoriontsu izateko duzun gaitasuna handitu egingo da”.

Hasi bedi, beraz, 2024a konpainia ederrean: besteenean, edo geure buruarenean. ●



PIXABAY



Ogibide berdinbide

Zein da emakumezkoen rola ogibide maskulinizatueta?









Saio berria

asteartero 22:00etan Hamaika Telebistan

ISABEL AZKARATEREN LANA, DONOSTIAN

Kliska bakarreko argazkilaria

Donostiako Maria Cristina Hoteleko sarrerako eskaileretan dozenaka argazkilaria elkar kolpatzen dira, argazki eta bideo kamerak eta objektibo eta lenteak daramatzaten zorroekin kargatuta. Jende multzoaren erdian emakume bakarra ageri da taldean. Ilea solte darama eta kamerarik ez duen bakarra da. Talde-argazki horren egilea Roman Polanski zinegilea da, 1988. urteko Donostiako Zinemaldian argazkilaria akreditatuei atera zien argazkia, une batez, rolak trukatuta-edo. Irudi hura Isabel Azkarateren Nikon F2-35mm kamerarekin atera zuen eta Arteguneako erakusketara ongi etorria ematen digun irudi enblematikoa da. Otsailaren 26ra arte ikusgai.

✂ JONE ALAITZ URIARTE 📷 ISABEL AZKARATE FUNTSA

Onartu beharra daukat, ahopeka bada ere, Isabel Azkarateren (Donostia, 1950) obra ez nuela ezagutzen, eta Tabakalerako Artegunea erakusketa-aretoan aurkeztzen den atzera begirakoa ikusi arte, ezer gutxi nekiela argazkilaria emankor horren inguruan. 1970eko hamarkadako lehen argazkiak ikustez bat konturatu naiz aurretik ikusteko neukan erakusketaren garrantziaz, argazkien kalitate eta gizatasunaz, eta objektiboaren atzean zegoen artistaren jakin min eta askatasunaz. Emozioz eta ezezaguna zitzaidan hura lehenbizikoz ikusteko grinaz ekin diot erakusketa bisitatzeari. Silvia Omedesek komisariatu duen proiektuan 300 argazkitik gora aurkeztu dira, gehientsuenak zuri beltzean inprimatuak, eta era sotilean markoztatuak. Erakusketaren ibilbideari eta museografiari dagokionez ezer berririk ez: magia guztia hormetan zintzilik dauden irudietan dago.



Atlas zirkua, Bartzelonan, 1981ean.

Oso gazte Bartzelonara lekualdatzea erabaki zuen Azkaratek, bertan argazkilaritza ikasketak egiteko. Argazkilaritza dokumentala egiten espezializatu zen, eta horretarako, hiriko periferietako auzoetan egiten ziren merkatu eta azoketako saltzaileak erretratatzeko hasi zen. Ohikoa ez zen hura interesatzen zitzaien, aldirietan zegoena, kanonetik aldentuta, bitxia eta arrotza sentitzen zuen hura interesatzen baizitzaion gehien. Bere argazkietan pertsonaia ugari daude, zerbait berezia duten gizabanakoak, eta distira hori badaki bere kamerarekin harrapatzen. Zirkuetako trapezista, hezle, dantzari eta pailazoak ere sarri erretratatu zituen, karpa kanpoan, beraien roulottean bermatuta, irribarretsu, bizitza nomadari eta eze-gonkorrari ausart begira.

KALEKO BIZITZA

New Yorkera joan zen gero, bere formakuntzarekin jarraitzeko asmoz, eta

bertan, tradizio handiko eskoletan ikasi zuen. Bartzelonan estilo dokumentaleko argazkilaritza finkatu bazuen ere, New Yorkera helduaz bat, bere argazkilaritza estilo artistikoagoa hartu zuen. Hiriko zigilua den *street photography* edo “kaleko argazkilaritza” delakoan buru belarri murgildu zen eta V. etorbidea, Central Park, East Village edo China Town-eko pertsonaiak erretratatzeko zituen, naturaltasunez, freskotasunez, kliska azkar batean betiere.

Kalean denbora asko igarotzen zuen eta bertan aurkitzen zituen bere argazkietako protagonistak. Horieta askok Azkaraterentzako pausatu zuten, harrotasunez, jakin bazekitelako beraien berezitasunak eman diola atentzioa argazkilaritari. Ederra da 1980. hamarkadako New Yorkeko erakusleho beteak ikustea, kale komertzialetako joan-etorrien zirrara antzematea eta gau giroko eszenetan muturra sartu ahal izatea. Hamarkada horren hasieran, GIBa agertu aurreko urteetan, jai eta distira protagonista ziren LGTBIQ+ zirkuluan murgiltzen hasi zen, mozorroak, desfileak, dantza eta festa gailentzen ziren atmosfera zirrargarrietan. Bowery Street inguruko gau giroa oso ondo islatzea lortu zuen, pertsona horien askatasuna eta bizitzarekiko grina era ezin hobean harrapatuta.

EUSKAL HERRIRA ITZULERA

Ameriketako Estatu Batuetatik bueltatu zenean, bere buruarekiko konfiantza handia zuen argazkilaria zen Azkarate, eta fotokazetari gisa hasi zen lanean *La voz de Euskadi* egunkarian, kazetarietarako zuzendutako proiektuan. Bertan ere lantaldeko emakume bakarra izatea tokatu zitzaion, eta haren kamerarekin, Euskal Herriko gatazka politikoaren urte ilunenak betikotu zituen. New Yorkeko zeru amaigabea Euskal Herriko asfaltoagatik ordezkatu zuen, sarri, odolez blaitutako lurra.

Erakusketaren ibilbidea nahiko perimetrala bada ere, gelaxka bat sortu dute aretoan, euskal gatazkari dagokion argazki seriek aurkezteko; gaiari zor zaion errespetuzko espazio propioa. Bertan, bai ETArri nola GALi egozten zaizkion hilketen dokumentazio grafikoa aurkeztu dute, lerrokatuta, gatazkaren bi parteak ahalik eta modu inpartzialenean aurkezteko intentzioz: Guardia Zibilen mehatxupean gauzatutako hiletak, klarion zuriz marraztutako gorpuen siluetak, ukabilak altxatuta boz goraz abesten diren gudarien omenezko kantuak, arrosa



gorriz estalitako hilkutzak... Sinbologia handiko argazkiak dira, euskaldunoi dagokigun historiaren zati krudel baten testigantza jaso zuen irudietan Isabel Azkaratek.

Euskal Herrian errotuta, eta behin *La voz de Euskadi* egunkaria desagertuta, Gipuzkoako Foru Aldundiko argazkilaria ofiziala izan zen hainbat urtez, eta egiteko horretan, probintziako ekitaldi ofizialak, inaugurazioak edota jaiak erretratatu zituen. Baina Azkaratek badu gaitasuna fokua elementu zentraletik atera eta ñabardura, ezohiko keinu eta testuinguru hurbilenean pausatzeko, argazkia gizatasunez eta umorez blaitzeko. Serieko argazkien artetik, bereziki ederrak iruditu zaizkit Lantzeko ihauteerien argazkiak, Oñatiko San Miguel jailetakoak edo Hondarribiko Aste Santuen prozesioan ateratakoak.

KLISKA AZKAR BATEN MAGIA

Elkarrizketa ugaritan entzun diot esaten bera ez dela mitomanoa, eta badu meritua Bette Davies, John Travolta edo Harvey Keitel bezalako figurak erretratatzeko aukera izan zuelako Zinemaldiko argazkilaria ofiziala izan zen garaian. Donostiako bizitza kulturala eta artistikoa ere oso ondo betikotu zuen, eta bere lagunak ziren Bixente Ameztoy,

Rosa Valverde, Rafael Ruiz Balerdi edo Olatz López Garmedia eta Julian Schnabelen familia-argazki intimo eta hurbilak ere ikus ditzakegu erakusketan. Zerbaitek kolpatu banau, hori izerditan blai dagoen Iggy Pop eskulturalaren argazkitzara izan da, baita Judas Priesteko kontzertuetako lehen ilarako zaleak erretratatzeko dituen argazkien seriea ere. Azkaratek berak esaten zuen askotan bera kokatzen zen lehen lerro horretan zegoela kliska azkar batean harrapatu nahi zuen momentu magikoa.

Azkarateri aurpegia jartzeko beharra sentitu dut hasieratik, objektiboaren atzean kliska azkar horiek egiten zituena nor zen jakin nahi nuen eta erakusketaren bukaera aldera aurkitu dut bere auto-erretratu sorta bideo batean bilduta. Ispilu, erakuslehoi eta hainbat erreflexuetan argazkilaria ageri zaigu, zuzenean begira, bere Nikon F2a eskuan, bizitza oso bat erretratatu, denbora bidaia batean eta dokumentu horrek, nola ez, segituan eraman nau Esther Ferrerren *Autoretratua denboran* proiektu itzelera. Azkarateren funtsa, 175.000 objektuz osatutakoa, hemendik aurrera Kutxako Fototekak kudeatuko du, artistaren balio handiko legatua ezagutzera eman eta modu onenean kontserbatua egon dadin. ●



LIBURUA

Nola hil nahi duzu? Benetako galdera da



EREIN

HERIOTZARI AURREZ AURRE BEGIRA

OSKAR GAZTELU

EREIN, 2022

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

zenburu zuzena du liburuak. Interpretazioetatik urruti, irakurri bezain azkar dakigu heriotzari buruz hitz egingo digula autoreak. Aurkibidea irakurrita saiakera baten aurrean gaudela ohartuko gara. Baina liburuak irakurtzen hasi eta berehala konturatuko gara Oskar Gazteluk bizitza eta heriotzarekin izan dituen esperientzia propioak ere kontatuko dituela bertan (lehenengo esperientzia, bigarren esperientzia eta hirugarren esperientzia kapituluetan bereziki). Teoria eta esperientziak emandako ezagutza tartekatuz liburu osoa egitea lortu duela uste dut. Sakona eta arina da aldi berean.

Liburuaren alde teorikotik bi azpimarratuko nituzke: heriotzaren gaiak liluratu egiten nau. Liluratu egiten nau heriotza tabutik ateratzeko edozein ahaleghinek. Denboran ez hain urruti egin izan diren errituen inguruko me-

moriak ere bai. *Hil osteko zeremoniak* kapitulu munduan barrena kolektibo desberdinek egin izan dituzten zeremonien inguruko deskribapenak jaso ditu autoreak, tartean Euskal Herriko errituen informazioa.

Hiltzen laguntzen kapitulu beharrezkoa da. Erreferentzia ezagunak, izen ospetsuak eta informazio baliagarria ematen du kapitulu honetan. Eta literaturan heriotza nola erreprezentatzen den aztertzen du 8. kapituluaren. Aipatzen dituen material batzuk ezagutzen ditut, baina etxeko lanak apuntatu ditut ezagutzen ez ditudanak irakurtzeko. Deformazio profesionala izango da.

Autoreak bere esperientziez hitz egiten duenean gertutasuna nabari dugu. Lehenengo pertsonan idazteak enpatia pizten digu, gure oroitzapenetan arakatzeko gonbidapen moduko bat da-

eta. Amaren baserria nola hustu zuen kontatzen duenean Lydia Flem autorearen *Comment j'ai vidé la maison de mes parents* (*Nola hustu gurasoen etxea*. Alberdania, 2004) liburuak ekarri dit gogora. Gurasoen etxea hustu behar duen balio sinbolikoari fokua jartzen dio honek ere.

Estilo errazean heldu dio idazleak gaisak eta konplexu bati. Esaldi motzak erabiltzen ditu, zuzena da. Baina ez du horregatik goxotasuna eta berotasuna galtzen liburuak. Gauden momentuaren araberako emozioak esna ditzake. Eta hausnarketarako aproposa da.

Hau idatzi bitartean jakin dut Gazteluk poesia liburu bat ere argitaratu zuela 2023an: *Baserria (h)uz(s)ten*. Konfiantzazko liburudendan eskatu dut jada. Eta iritsi bezain azkar gogotsu helduko diot irakurketari. ●



MUSIKA

Freskotasunez gainezka



EGO FUNDAZIOA

FITXA

EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA

ZUZENDARIA: Unai Urrecho.

EGITARAUA: Rossiniren *La gazza ladra*-ren obertura, eta Brahmsen 4. Sinfonia, mi minorrekoa, op. 98.

NON: Gasteizko Principal Antzokian.

NOIZ: Urtarrilaren 3an.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Euskal Herriko Gazte Orkestra sortu zenetik, urtero bezala, instrumentista gazteek osatutako taldeak Gabonetako kontzertua eskaini zigun. Musika entzuteko aukera ederra, musikari gazte hauek ematen duten freskotasunaz betea, jai eta familia giroan.

Oraingo honetan, orkestrak, Unai Urrechok zuzendari gonbidatu gisa gidaturik (zuzendari titularra Rubén Gimeno da), programa ederra eskaini zigun. Izaera oso desberdina duten bi obra, edozein talderen kalitate musikala ebaluatzeko proba izan daitezkeanak, zalantzarik gabe.

Egitarau laburra, baina Urrechok berak obra bakoitzaren hasieran ematen zituen azalpenekin osatua. Bere hitzen bidez jakin genuen, adibidez, bera ere instrumentista izan zela taldearen inaugurazio egunean, 1997an, Juanjo Menaren zuzendaritzapean. Hona he-

men harrobiko musikari horien eboluazioaren adibide bat.

Topaketa Rossiniren *La gazza ladra* obraren obertura famatuarekin hasi zen, energiaren eta dinamismoz beteriko obra. EGOk talde gisa erakutsi zituen ezaugarrien adierazpen ezin hobea aurkitu zuen lan honetan: zuzendariaren argibideekiko esanekotasuna, trinkotze ona, kemen musikala. Hain zuzen ere, gazte-talde batengandik espero dena.

Orkestrak benetan soinu ona ateratu zuen. Eta azpimarratzekoa da Urrechoren batuta ona: zehatza keinuan, eta kontu handiz xehetasunetan.

Eskaini zuten bigarren lanak izaera zeharo desberdina zuen. Brahmsen 4. Sinfonia *mi minorrean* obra sakona da, non konpositoreak bere arima erakusten duen, introspektzio handiko lana. Zuzendariak "entzuteko lan zailtzat" jo zuen arren, obra konplexua delako,

musikalki eta emozionalki, sinfonia hau arkitektura ikaragarriko lana da, zentzumenentzako plazer bat. Errepertorio unibertsalaren sinfonia gogokoenetakoa.

Horrelako lanekin gertatzen dena da agian sakontasunik gabe ager daitezkeela gazte bertsio batean, eta oraingo honetan, nolabait, horrela izan da. Lehen mugimendutik espero genuen arnasketa irrikatsua zerbait "neurtua" izan zen. Eta bigarren mugimenduko hausnarketa eta introspektzioa zertxobait "arinagoak" izan ziren. Baina horrek ez zuen eragotzi obraren irakurketa zuzena eta freskoa izatea. Bertsio ona, dramatismoz gabea nolabait, baina ongi eraikia.

Entzuleek gogoz txalotu zuten. Eta bisak bikainak izan ziren: Brahmsen bi dantza hungariar, distiraz beteak. Harrobi ona dugu, ez dago zalantzarik. ●



Lurpeko sabai oker bat

UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA

AINHOA IRAOLA

Ateneon musika zikloaren denboraldi berria estreinatzen. Sarrera guztiak agortuta. Kontatu digutenagatik, kontzertua iragartzean dei pila jaso zuten antolatzaileek, eta aurre-salmentan segituan bukatu ziren sarrera denak. Pribilegiatu sentiarazi ninduen, beraz, sarrerak lortu zizkigun lagunaren mezuak. Eta kontzertu horretan egoteko pribilegioa sentitzeak badio zerbait taldeez eta musika zikloaz.

Eskaileretan behera aretora sartzekotan entzun nuen lehenengo abestia, aretoa jada beteta zegoela. Bigarren abestirako, Miren Narbaizaren oilo ipurdia jartzeko txilio horietako batean itxi zituzten kanpoko atea eta eskaileretarako gortina. Lurpeko sabai okerdun ganbara bat, jendez lepo, eta sei musikari handi eszenatoki txikia betetzen, negua udaberritzeko gertu. Segituan eraiki dute *Lautada* hori, bertan –eszenatokia ia erditik mozten duen zutabe handi baten bi aldetara estrategikoki kokatutako– publikoaren gorputz-adarrak aske mugitzera daramatzana. Gorputzak ia inkontzienteki mugimenduan, baina, eszenatoki gainean neoizko argipean dagoen espektakulari begira, adi.

Imajinatu oreka irudikatzen dela bi marra paraleloekin, gora-behera propiodunak: goiko marrak agitaziorantz, euforiarantz, klimaxerantz egiten du goraka; behekoak, aldiz, iluntasunerantz, lurrerantz, isiltasunerantz beheraka. Oreka, beraz, mugimendua da, bi marrak elkarrengana hurbiltzeko saiakera. Eta horixe izan da Miceren zuzenekoak: ahots propio-kolektibo baten orekaren maisu-maistrak, edo beraien hitzetan, baretasunean sendo, izarrarteko bidaietan.

Les Sauvaje MJak girotu du trantsizioa, eta ostean, post-punk elektronikoak jarri gaitu izerditan. Nakarrek (argazkian) hasi orduko publikoa be-



MICE + NAKAR + LES SAUVAGE DJ

NON: Elorrioko Ateneoan

NOIZ: 2023ko abenduaren 23an.

reganatua daukala somatzen da giroan, lehen diskoa kaleratu eta hilabetera. Katakrakek egindako *Hau dena* lan kolektiboko *Epikuro*, *mindfulness*, *speed* abestiarekin eman diote hasiera. Hasierarekin sabaia jo, eta tartean kable okerra zapaldu arren, sabaian mantendu dute aretoa bukaeraraino. Gure garai ilun honentzako gerra-oihua

batetik bestera, trantzean, eszenatoki goi-beheak. *Nakar* abestiarekin bukatu dute, "ba haxe gara" esanez bezala. Eta musikarien bisaian ikus daiteke beraiek dantzatzea nahi duten musika egiten dutela; bakarrik egotera etorri direla, baina elkarrekin (edo publikoarekin).

Kamiseta bustita Les Sauvajeren musika aukeraketa ederraz gozatzen nengoela, bukatzeko, kontzerturo egin ohi dudana ariketari tartetxoa: eszenatoki gainean bederatzitik bi emakume; selektorretan plenoa, bitik bi; teknikari lanetan zero, uste dut; antolakuntzan ez dakit, galdetu beharko; kamera eskuan bitik bat; barran zerbitzari lanean erdiak-edo; eta aretoan orotara %50etik gora esango nuke, ia %60. Ez diot nik, matematikek baizik: gure lurpeetan ere badirela sabaia, tarteka okertuz hasiak. ●



Hitz geqidunak

ILOBA (BIZKAIAN) NAFARROAKO DANTZA	UNE, DENBORALDI BIENTZAKO TXIRRINGA	HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA	OINAZEA PRESIO UNITATE	LEGEZ, BEZALA LITROA	FRUITU, EMAITZA INTSEKTU	ITSUSI, ITXURA ESKASEKO UGAZTUN KARNIBORO	
		TREBETASU-NEZ NIOBIOA					
BARRUAN ARRANTZA EGITEKO TRESNAK				ADAR TXIKI ETA MEHEA KILOA			
					METXA LOTAN		
ERABAT BETE	501 ERROMATAR ZENBAKIZ TXERRIKI XERRA					ZINTZO BAZTERREKO AUZO	
		SORTZALEA				NORENA ATZIZKIA URRATU ADITZAREN ERROA	
OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEA GALDE PARTIKULA							UR KORRONTE NATURALA
	GIGA GOIBEL, TRISTE					ORRIALDE EGUNEROKO JANGAI	
MAIZTASUN PARTIKULA ARGAZKIAN		ZAREN HORI SINDIKATU ABERTZALEA	ZUHAITZ IZENA ERRE- PIKATUZ, IRAKITEN	BOKAL BIRIBILA	EKIALDE GARAI, ALDI	BYTE LANDARE MOTA	
				MAKOA, ARKUA GALIOA			
ZUHAITZ MOTA NAFARROAKO BAILARA			BORONDATE ON URANIOA				
					ABERE TALDEA		

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	4	9	5					
8					1	4	5	
			8		9		2	
9	1			4		2		
		4		7	8		9	
	8	7			6	1		
	9		4	7	1	2	5	
	3			2	7			
7		2	6		4	9		

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Animaliairen harrizko aztarna.
2. Aitaren edo amaren anaia.
3. Gela baten estalki.
4. Erreka.
5. Lurra iraultzeko lanabesak.

EBAZPENAK

1. FOSIL
2. OSABA
3. SABAI
4. IBAIA
5. LAIAK

7	5	2	6	3	8	4	7	1	9	8	5	7
4	3	1	9	2	5	7	8	6	3	8	4	7
6	9	8	4	7	1	2	5	3	3	8	7	2
3	8	7	2	5	9	6	1	4	9	1	6	3
5	2	4	1	6	7	8	3	9	6	1	6	3
9	1	6	3	8	4	5	2	7	2	7	9	2
1	7	5	8	4	3	9	6	2	8	6	3	7
8	6	3	7	9	2	1	4	5	2	4	9	5
2	4	9	5	1	6	3	7	8	8	6	3	7

V	A	I	E	L	V	U	R	V	S	V	B						
I	H	N	A	I	G	N	O	V	E	T	O						
V	B	I	V	A	G	U	B	I	L	L	M	V					
B	E	O	E	O	P	Z	I	H	O								
I	O	R	I					G	L	V							
V	R	A	U	R	A			E	M	O							
V	N	R	E					E	S	V							
N	O		L					D	I								
I	K	M	U	K	V	R	A	B	E	N	V	A	N	V	A	N	K
V	Z	T	O	Z	N	E	V	N	E	A	B	A	R	N	E	V	B
Z	V	Z	I	Z	E	L	I	B	V	A	V	T	O	J			
E	Z	L	M	H	G												

Kimmy Obongonyinge

ZAINTZAREN INDARRAZ



INTERSEKZIONALITATEA ARDATZ

"Zapalkuntza eta borroka askok zeharkatzen nautenez, zaila egiten zait neure burua definitzea, baina arraza biko pertsona naiz, edozein zapalkuntzaren kontrako aktibista eta bizidunekiko enpatia handia daukat. Horregatik, interseksionalitatea nire identitateak ulertzeko tresna garrantzitsu bat da. Pertsona beltzek sufritzen duten zapalkuntzatik dator, eta zapalkuntzen arteko harremanak ulertzen laguntzeaz gain, baliagarria da ulertzeko zergatik batzuek pribilegioak dituzten edo ez dituzten. Interseksionalitateari esker, justizia soziala lortzeko espazioak irisgarriagoak dira".

"Kolektiboetatik kanpo dauden zapalkuntzak ere eragileetan erreproduzitzen dira"

Beganismo zuriari kritika egiten dio Kimmy Obongonyinge aktibista antiespezistak (Croydon, Londres, 1995), eta militantzia ikuspegi interseksionaletik landu behar dela esan du. Pertsona arrazializatuek animalien askapenaren alde borrokatzeko dituzten mugez, ekintzaileen jarrera zapaltzaileez, eta bestelakoez mintzatu da BAB Bilboko Azoka Beganoan.

 OLAIA L. GARAIALDE  PELLO MAUDO HERRERO

BABen eman zenuen hitzaldiaren hasieran, mentalitate irekia izateko eskatu zenion jendeari. Erresistentzia handia topatu duzu espazio antiespezistetan?

Parte hartu dudana espazio guztietan, nahiz eta feministak edo antiespezistak izan, jendearen erresistentzia topatu dut. Adibidez, animalien askapenerako mugimenduan giza eskubideez eta justizia sozialaz hitz egiten dudanean, jendeak segituan adierazten du erresistentzia. Askotan, normala eta naturala da erresistentzia adieraztea; horregatik, uste dut garrantzitsua dela denbora tarte bat lasai hartzea, prozesatzea eta hausnartzea, eta deseroso sentituz gero, zerbait egin edo esan baino lehen, ongi pentsatzea gomendatzen dut.

Horren ondorioz militantzia espazio batzuek espazio seguruak izateari uzten diote?

Uste dut ez dela bakarrik arrazarengatik, beste gauza askorengatik ere gertatzen da: orientazio sexualarengatik, genero identitatearenga-

tik, desgaitua izateagatik, eta abar. Kolektiboetatik kanpo dauden zapalkuntzak ere eragileetan erreproduzitzen dira; hala nola homofobia, transfobia, lodifobia, eta beste asko. Baina jendeak ez ditu ikusten. Azkenean, pribilegiadunek indarkeria horiek guztiak erreproduzitu ditzakete. Seguruak izan beharko lirakeen espazioetan indarkeria fisikoa sufritu duen jendea ezagutzen dut, eta ez da justua. Denok izan beharko genuke askapenaren alde borrokatzeko aukera.

Salatzen duzu, batez ere emakume eta genero disidenteez osatuta dagoen mugimendua bat izan arren, gizonak direla protagonista. Zer dago horren atzean?

Ez da soilik itzaletik emakumeek bultzatutako mugimendua, baizik eta, askotan, emakume arrazializatuek bultzatutako borroka da. Lotura zuzena dauka patriarkatuarekin, gizon zisgenero zuriak direlako beti aitortza jasotzen dutenak. Urte luzez erreproduzitu dugu hori gure irudi-



“Batzuetan ahazten zaigu zer jaten dugun erabakitzea pribilegio bat dela”.

terian. Horrek ez du esan nahi borrokan ari diren gizonak gaizki egiten dutenik, baina ezin zaigu ahaztu itzalean dauden emakume guztien lana eta errekonozimendua.

Beganismo zuriari kritika egiten diozu; nola deskribatuko zenuke beganismo zuria?

Beganismo zuria da begirada eurozentristatik egiten den mugimendua, ez dituen lehenean beste zapalkuntzak jasaten dituzten pertsonak. Soilik bereari begira dago. Horrelako mugimenduetan militatzen dutenak, orokorrean, pertsona zuriak izaten dira, klase ertainekoak, eta langile klasearen inguruko zeozer dakitenak, baina hortik harago lanketarik egiten ez dutenak. Horrelako espazioetan, irisgarritasunaz hitz egiten dugunean, ez gaituzte entzuten eta ikusezin egiten gaituzte. Horrek ez dio inori mesederik egiten, ez mugimenduan militatzen dugunoi ezta animalien askapenari ere.

Zer-nolako mugak edo trabak daude mugimendu antiespezistara hurbiltzeko?

Uste dut bi motakoak direla; alde bate-tik, aktibismo beganoa egiteko mugak, eta bestetik, animalia jatorriko produktuak baztertze zailtasunak. Lehenengoari dagokionez, mugimenduaren barruan ematen diren zapalkuntza guztiak oztupo handiak dira, hala nola, lodifobia eta misoginia. Horrez gain, egoera irregularrean dagoen pertsona batentzat bizirautea izaten denez lehentasuna zaila da beste borroka batzuetarako indarra izatea.

Eta produktuei dagokienez?

Orokorrean, pertsona arrazializatuetzat produktu batzuk erostea oso zaila da, leku gutxietan dauden behar ditugulako. Adibidez, gure ilea garbitzeko ohiko dendetan ez dagoen xanpu bat behar dugunez, ordu eta erdiko bidaia egin behar dut erosteko. Gainera, gutxi egoteaz gain, oso garestiak izaten dira. Hutsala dirudi, baina jendeak egunero-koan behar dituen gauzak aurkitzeko ez dakit zenbat buelta eman beharko balitu, frustrazioa ulertuko luke. Beste muga bat elikadura bidegabekeria da; batzuetan ahazten zaigu pribilegio bat dela zer jaten dugun erabakitzea. Ba-

tzuek esaten dute txitxirioak jatea oso merkea dela, baina lekaleak prestatzeko denbora behar da, eta esplotazio egoeran dauden pertsona arrazializatuek ez dute deusetarako astirik. Horregatik, askok janari lasterra jaten dute.

Hizkuntza ere muga izan daitekeela diote; uste duzu militantziarako muga izan daitekeela?

Kapitalismoaren eta neoliberalismoaren ondorioz, oso ikuspegi indibidualista dugunez, ahaztu egiten zaigu gauzak aldatzeko kolektiboan borrokatu behar dugula. Horretarako, oso garrantzitsua da harremanak sustatzea hizkuntza anitzez osaturiko espazioen bidez; esate baterako, euskara eta gaztelania beste hizkuntzekin elkartuz. Nire gaztelania ez da ona, baina beste bat ingelesez pixka bat moldatzen bada, errazagoa izan daiteke. Hala ere, ezin zaigu ahaztu muga handiena ez dela hizkuntza, baizik eta jendea ez dela fio zapaltzaileez. Horregatik, garrantzitsuena da konfiantza lantzea, eta komunitateen arteko harremanak sustatzea. Aktibismoa zaintzatik egiteak hitzek baino indar handiagoa du. ●

Tren horri ez

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Koldo Izagirrek badu liburuxka oso gomendagarri bat, Eako poesia egunen antolatzaileen eskutik Zaldiarri bilduman 2012an argitaratua: *Emakumeak trena hartu zueneko*. Errepaso ederra ematen dio XX. mendeko euskal poesiari, abiapuntu gisa hartuta trenak, ferrokarrillak, bultziak, idazleen lanetan nola agertzen diren, zer iradokitzeko; norik begiratzeko dion trenari, nor doan barruan, nor geratzen den geltokian; zergatik arbuatu zuten batzuek, zer dela-eta maite izan zuen hasieratik herriak.

Garraio bide batek zenbat esan dezakeen gure mundu-ikuskeraz. “Pierre Lotik lantua jo zuen trenak Hendaiara eta, oro har, Euskal Herrira iritsi behar zuelako”, kontatzen du Izagirrek, *Ramuntxo*-ren egileak asuntuaz idatzitako lerroak ekarri aurretik: “Gaixo Euskal Herria! Hain luzaz ukigabea, Arabia txipi baten antzeko, antzinako ohiturek eta ikasi ezin litekeen hizkuntzak babestua zena, hona hemen badaoala!”. Loti, portzierto, gure herriaren esentziakin hain kezkatuta ibili ordez, arduratu zitekeen berak zuzenean masakratu zituen herriez, harro antzean kontatu baitzuen *Le Figaro*-n nola tirokatu zituen indotxinarrak Frantziako armadaren uniformearekin soinean zera-mala. Kronika okaztagarri horietan, bere fusiletik ihesi ari direnek gorputza “modu komikoan astintzen” dute eta balentria amaitutakoan aitortzen du: “Hildakoak kontatzen dibertitzen ginen”.

Segi dezagun trenarekin, dena den. Gero hitz egingo dugu hilketez berriro. “Arrotzez beterik egon da bultzia. / Hitz lotsabakoak, abesti zantarrak, / nahi ta nahi ez, entzun behar izan dodaz / Jainkoaren aurka biraoaz nahastuta”, idatzi zuen Sorne Unzueta “Utarsus”-ek 1932ko *Nire herria* poe-



man. Idazle bizkaitarraren gaztetako testu hura izan liteke garaiko abertzaletasun ofizialak modernitateari zion mesfidantzaren erakusgarri on bat: besteak eta bestelakoak ez ikusi eta ez entzun nahia. Baina Unzueta-rekin justuak izateko, gogoratu behar da haren 1985eko *Etsaiak?* poema ere. Gauerdiko tren batera igo da idazlea: “Deustch-menperatutik aske-aldera noa. / Azken aginduak, diru pilo itzelaz / daukodaz kolkoan, eta horrexegaitik / neure baztertuan, larri naz benetan”. Nazien kontrako erresistentzian ibilitako emakumearen testigantza horrek inozentzia galdu duen norbaiten kontzientzia islatzen du: aginduak eta dirua, biak erabiliko dira soldadu alemanak hiltzeko. Eta bera horretan parte hartzen ari da.

Honaino iristeko pazientzia izan duen irakurlea, nik uste, honezkero galdezka ari da ea burdinbide honek nora daraman. Eta ez du susmatzen erantzuna: palestinarren jasaten ari diren sarraskiak ekarri dizkit gogo-

ra kontu hauek. Konkretuki, hilkintza horretan euskaldunok jokatzeko dugun paperak –edo, tira: Eusko Jaurlaritza bazkide duen euskal enpresa batek–. Larunbat honetarako manifestazioa deitu du Palestinarekin Elkartasuna ekimenak, “CAF Palestinatik kanpora” lemapean. Jakingo duzue noski, gure tren fabrikatzaile nagusia bete-betean sartuta dagoela Jerusalem Light Rail proiektuan, baita proiektu horrek nola lotzen dituen Israelek Palestinaren lurretan ilegalki okupatutako eremuak ere. Hortik goitizena: Apartheid Trena.

Kontu deserosoa da, baina esan beharrekoa: genozidioaren geltoki bat etxe ondoan daukagu. Oraingoan beraz, ez da trenaren aurkako jarrera antimodernorik, beste tren baten aldarria baizik, erresistentzian ari den Unzueta daraman huraxe. Eta Lotik euskaldunontzat amesten zuen purutasun faltsu hura behingoz baztertzea ere bai: errugabeak tirokatzen dibertitzen direnak baino lagun hobeak bilatu behar genituzke atzerrian. ●



Prezioa **28 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**

BERTAKO -rekin, BAI!

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz **benetako 24/7/365** zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz konfiantza osoa eta lasaitasunari
- Baietz bertako hornitzaileei

DROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko



WWW.BERTAKO.EUS

BIZKAIA
946 523 935

GIPUZKOA
943 903 450

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

bertako
igogailuak | ascensores

